uk

133. zenbakia / 2008 martxoak 3

Euskara Zerbitzuak zorion-txartel, gonbidapen edota oroigarri ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren inprentetara. Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

ARGAZKI LUR (Euskal Color Amezti),
ARGAZKI LUR (Villamonte),
LIBRERÍA ZUGATZARTE,
EUSKAL COLOR,
ARNAGA,
BEHIN BATEAN,
FOTO Y PAPEL,
ITXASIKUS,
LIBRERÍA ERKUDEN,
LIBROS PAPELERIA ANA Mª BOLOIX,
COSAS,
HODOI,
LIBRERIA ITZIAR,
BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA,
KOPRINTER,
FOTOCOPIAS KISER,
IMPRENTA ARENAS,
LIBRERÍA MAYOR 29,
LIBRERÍA NADAL,
LIBRERÍA PAPELERIA BLOCK,
BEREZI COLOR,
CIANOPLAN,
FOTO RICARDO,
FOTO IÑAKI,
LADREDO HERMANOS

Non zer

4. GU GEU.

5. IRUDIA. Corrado Masacciren txotxongiloa.

7. LEHEN ETA ORAIN. Satistegiko aldapa.

8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.

11. ERRETRATUA. Lucia Linares.

12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.

25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Harley-Davidson motorren erakusketa Artean.

28. ARGAZKIA. Mesedeetako elizaren kupula, Areeta.

30. BERBETAN. Esti Lopez eta Gerry Regitschnig.

34. FOTOGRAFIA. Jatorrizko andrazkoak, Mexiko eta Guatemala.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Emakumezko zuzendarien zikloa, Leioa.

43. MUSIKA. Eskorbuto. Diskoen erreseinak.

44. LIBURUAK. Erlijioaren jakinduria bilduma. Liburuen erreseinak.

45. KIROLAK. Kirol askotako emakumeen Uribe Kostako I.go txapelketa.

46. ELKARRIZKETA. Rosa Temiño, Biladi elkartea.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Kreoia etxea.

50. HOROSKOPOA.

51. KOMIKIA. Dogan Gozel.

52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.

53. FLASH BACK. Gorlizko txistulariak, 1964. Bittor Egurrola.

54. AITORMENAK. Xabi Ortuzar, Ander P. Goikoetxea.

Azala: Asier Mentxaka

30 Esti Lopez

11 Lucia Linares

Berbetan

Cirque du Soleil ospetsuan dantzari eta akrobata izateko prestatzen dabil getxoztarra. Zirkuko pailazoetako bat du bikotekide Lopezek, biakaz jardun dugu.

46 Rosa Temiño

34 Jatorrizko andrak


13 Fredi Paia


54 Xabi Ortuzar



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra

www.renaultleioa.com

Iparragirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42 43

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan, Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka, Jose Mari Martinez

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Oskar Fernández, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Getxo
UDALA · AYUNTAMIENTO
Euskara zerbitzua

Erandioko Udala

Sopelanako Udala

Urdulizko Udala

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

gugeu

Eguzkia zerumugan

Begi aurrean duzun zenbaki hau garunera garraia ezazu irakurle, eta momentu batez begiak itxi. Imajinazioari muga denak kendu eta... Pare bat orrialde izan ezik gainontzeko guztiak zuri-gris-beltzak dira, bai. Ostera, guk ere ariketa berbera egin dugu eta burura etorri zaigun kolorea morea izan da. Zenbaki honetako albiste, erreportaje edota elkarrizketa askoren edukiagatik dela erraz ondorioztatu dugu. Izan ere, Emakumeen (langile) Nazioarteko Eguna dela eta orrialde andana bete ditugu martxoaren 8rako gure eskualdean egingo diren ekitaldiakaz. Horrez gainera, oro har, andrazkoen eguneroko jarduna ere ekarri gura izan dugu orrialdeotara. Halere, ez da urtean behin, egun jakin batean bakarrik gauzatu beharrako nahia. Batzuetan lortzen ez badugu ere, UK-ko lantaldea beti ahalegintzen da emakumezkoen lana (orotarikoa) azaleratzen, jardun hori ezkutarazten duten sasi guztien azpiko loreei hazteko gure eguzki izpitxoa helarazten; batzuetan zirrikitu gehiago aurkitzen ditugu, bestetan sasi-arantzek zaurituta amaitzen dugu. Alabaina, zaurien eta ubelduren gorri eta more koloreen gainetik aurrera egiteko indarra, ahalegintzen jarraitzeko kemena... ez ditugu galtzen.

Eta bat-batean, begiak zabaldu, eta 133. UK honen azala ikusi dugu: bide luzea aurrez aurre, oztopoak parez pare, baina eguzkia zerumugan... ✔

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

uk adi!

Konturatuko zineten 2008ko harpidetza kuota oraindik ez dizuegula bankutik pasatu, arazo tekniko batzuk izan ditugu-eta. Horrenbestez, martxoaren hasieran kuota jasotzen hasiko gara.
Barkatu eragozpenak, eta eskerrik asko!

Zalantzarik balego deitu 94 491 13 37 telefonora

URDULIZ, 2008

Masacciren txotxongiloa / Mugitu ahal izateko artistaren eskuak behar dituen panpina alferrak dira txotxongiloak. Goiko hau, Corrado Masacci italiarraren bildumako lagunetako bat da. Urdulizko Kultur Etxean otsailean egindako *"Un mundo de marionetas"* erakusketan ikusi ahal izan genuen. Kultura ezberdinetan txotxongiloei eman zaien erabileraren gaineko gogoeta egin gura zuen artistak erakusketa honekin. Umeei zein nagusiei fantasiazko mundu magiko batean sartzen lagundu diete historian zehar txotxongiloek. Goikoak beldurrezko istorio baten protagonista ematen du, ume koitaduaren plantak egin nahi dituen gizon gaiztoa. ❍ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

ERANDION
>berbalagun<
Ikasten dabiltzanekin berba egiteko...
...ordu bete astean, bai?
Euskalduna bazara, emaiezu laguntza; eskertuko dizute-ta!
ANIMA ZAITEZ!!
Tel.: 94 467 27 81 (16:00etatik aurrera, Astelehenetik ostegunera)
658 70 93 32 (Leire)
e-maila: berbalaguna@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Altzaga
ERANDIO ESKARAZ GIN.
ERANDIO ELIZATEKO UDALA
Ayuntamiento de la Anteiglesia de Erandio
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BFA
DFB

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / SATISTEGIKO ALDAPA

*** Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > manoli eta manolo

Testua: **Xa2 Paya /** Argazkia: **Janko Hormaza Amilibia**

-Aizu, Manolo, jada ez nauzu
lehen bezala tratatzen!
-Noski, Manoli, denbora ez da
inoiz alperrik pasatzen!
-Jada ez dugu zapatuetan
Berna Etxean afaltzen
-Barikuetan ere ez gara
lehen bezain goiz oheratzen...
-Domekak, aldiz, beti bezala,
mezatara zuzen-zuzen!

-Ezkondu eta sarri etorri
nahi genuen Azkorrira
egunsentia ikusi nahian
itsasoari begira...
-Baina zu beti lanean zeunden
lantegitik lantegira...
-Etxean ere semeen eta
alabaren tirabira...
-Eta etorri garenerako
eguzkia itzali da.

-Ene, Manolo, hara bankuan
behin idatzi zenuena,
bihotz batean sartu zenuen
nik daramadan izena.
-Hala da, banku honetan neukan
interesik handiena
eta nahiz eta hau ajatu den
urte hauetan barrena,
nire bihotzak idatzia du
ezabatuko ez dena.

** Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan*



BASALBO BASERRIA
JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

eskura > Eskualdeko albisterik garrantzitsuenak sakelakoan jaso itzazu



Sakelakoan jasotzeaz gainera, posta elektronikoz ere jaso daitezke berriak

UKBERRI.NET Uribe Kostako agerkari digitalak eskualdean ematen diren albiste nagusiak momentuan eta euskaraz sakelako telefonoan jasotzeko aukera ematen hasi da. Twitter webgunearen teknologia erabiliz eta Mikel Iturbe getxoztarraren laguntzari esker jarri dute ekimen hau martxan. Erresuma Batura SMS bat bidaltzearen salneurria izango du zerbitzu honek, telefonoan zerbitzua aktibatzeko bidali beharreko mezuaren prezioa, alegia. Ekimen berritzaile honetan parte hartu ahal izateko jarraitu beharreko urratsak www.ukberri.net webgunean aurkitu ahal izango dituzue. Albisterik garrantzitsuenak soilik igortzeko konpromisoa hartu dute agerkari digitaleko langileek, *"jasotzaileari zerbitzu lagungarria eta arinena ematearren"*. Nahi izanez gero, posta elektroniko bidez ere jaso daitezke mezuak.

euskara > Euskarazko unibertsitatea 2010erako jarri gura dute abian

Gipuzkoan (irudian) edo Nafarroan egongo da campus nagusia

"Euskaldunen *unibertsitate eleanitza, euskararen hizkuntza komunitatea eratzeko eta garatzeko erakundea, gizarte partaidetzakoa, demokratikoa eta herriaren zerbitzura dagoena"*. Hauek izango dira Udako Euskal Unibertsitateko, Nazio Eztabaidaguneko eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko lagunek 2010-2011 ikasturterako martxan jarri gura duten Euskal Unibertsitatearen ezaugarrietako batzuk. Hau zortzi titulaziorekin hasiko da eta Nafarroan edo Gipuzkoan izango du campus nagusia. 2003. urtean eman ziren egitasmo honetarako lehenengo pausoak, batzordearen sorrerarekin eta 2006ko uztailean *Euskal Unibertsitatea* izeneko aurreproiektua aurkeztu zen. Honek *"Euskal Herriaren eraketa politiko-sozialerako lagungarri"* izatea bilatuko du.

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

Egunkaria libre! > Bost urte pasa dira Egunkaria itxi zutenetik

Otsailaren 20an Telletxen (Algorta) egin zen elkarretaratzea duzue irudi hauetan. Eskualdean beste hainbat ekimen ere egin ziren *Egunkaria*ren alde.

1937ko urtarrilaren lehenengoan kaleratu zen lehen aldiz euskarazko egunkari bat, Eguna. Gerra garaiko egunkaria izan zen eta bost hilabete eta erdiko iraupena izan zuen. 43 urte beranduago, 1990eko abenduaren 6an, Euskaldunon Egunkariaren lehenengo zenbakia argitaratu zen. 13 urte beranduago, 2003ko otsailaren 20an, inolako justifikaziorik gabe eta indar polizialen bortizkeria tresnatzat erabilita, euskal egunerokoaren ateak itxi zituen Guardia Zibilak. Euskal komunikabideen, adierazpen askatasunaren eta, oro har, euskaldun guztion kontrako eraso hau salatzeko, hainbat elkarretaratze egin ziren otsailaren 20an Uribe Kostan. Bost urte joan dira itxieratik, baina oraindik ez dugu ekintza bidegabe hori justifika dezakeen azalpenik jaso eta ziur gaude ez ditugula jasoko. UKtik besarkadarik beroena bidali nahi diegu egunero-egunero gure hizkuntzaren eta adierazpen askatasunaren alde borrokatzen duten guztiei. ❍



cianoplan global printers

Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
enmarkaketak •

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

***"Gobernuak emakume alargunak ikusezin bihurtzen saiatzen dira eta ez dute gure beharrei erantzuteko asmorik ere erakusten"*, diño Lucia Linaresek.**

Lucia Linares > Uribe Kostako Alargunen Elkarteko lehendakaria

Emakumearen Nazioarteko Eguna zela-eta jo genuen Lucia Linaresengana, baina berak argi utzi zigun ez dela horrelako egunak ospatzearen aldekoa: *"Politikariek argazkietan ateratzeko erabiltzen duten beste egun bat besterik ez da; borroka ez da egun bateko kontua"*. Uribe Kostako eta Euskal Herriko Alargun Elkarteen lehendakaria da algortarra 2001. urtetik. 800 lagun inguru daude Uribe Kostako Alargunen Elkartean, gizonak zein emakumeak: *"Hasieran emakumeak ginen soilik, baina estatutuak aldatzea erabaki genuen; berdintasuna gura badugu batera jardun beharko dugu"*. Emakume alargunek bizi duten bazterketa salatzeko sortu zen elkartea. Gogor lan egin behar du Luciak elkarteko kide guztien beharrei erantzuna emateko: *"Tamalgarria da emakume alargunok bizi dugun egoera; gobernuek gu ikusezin bihurtzen saiatzen dira eta ez dute gure beharrei erantzuteko asmorik ere erakusten"*. Ez da txantxetarako gaia: *"Emakume alargunok bizi dugun txirotasun eta bazterketa egoera ikaragarria dela argi utzi nahi dut!"*, esan digu seriotasunez. Hala ere, elkartean egindako lana positiboa dela uste du: *"Indarra ematen dit sartu berri diren emakumeek ematen dituzten aurrerapausoak ikusteak. Beldur asko ditugun kolektiboa bagara ere, lan munduan murgiltzeko, aurrera egiteko eta borrokatzeko kapazak gara"*. ❍ Argazkia: **Jose Maria Martinez** / Testua: **Maitane Nerekan**

Martxoaren 8ko ekimenak

Emakumeen **Nazioarteko Egunean manifestazioa** deitu du Bilgune Feministak. Bestalde, herrian emakumeen talde berri bat osatu dute **Berdintasun Plana**ren garapena ziurtatzeko **helburuarekin**

Mahai ingurua, literatura topaketa, horma irudia eta erakusketa antolatu dute, besteak beste, Emakumeen Egunaren karietara. Gainera, emakume multzo batek taldea osatu berri du, Udalaren Berdintasun Plana gara dadin lortzeko asmoz.

Orain dela urte batzuk Emakumeen Nazioarteko Egunean Algortan egindako horma-irudia

Emakumeen eguna da martxoaren 8an. Haien eskubideen eta parekidetasunaren aldeko ekimenak eta mobilizazioak antolatu dituzte, urtero legez. Martxoaren 4an, asteartearekin, mahai ingurua prestatu dute, "emakumeen kontrako bereizkeria ekonomikoa" gaiari buruz eztabaidatzeko. Hiru hizlarik hartuko dute parte: Olga Macia abokatuak, Lucia Linares ALBOA Getxoko Alargunen Elkarteko buruak, eta Mertxe Larrañaga Ekonomia eta enpresa Zientzien Fakultateko irakasle eta EHUko Berdintasunerako zuzendariak. Algortako Villamonteko Kultur Etxean arituko dira, 19:30ean.

Ostiralean, hilaren 7an, berriz, parte hartzeko horma irudia margotuko dute 10:00etan, Algortako Txiki Otaegi plazan, eta 12:30ean adierazpena irakurriko dute herriko emakumeen erakunde eta elkarteek. Martxoaren 8an eskualdeko manifestazioa deitu du Bilgune Feministak. Telletxetik abiatuko da 19:00etan. Baina ekimenak ez dituzte mobilizazioarekin amaituko.

Hilaren 11n, asteartearekin, Literatura topaketa egingo dute, "Emakumezko 8 idazle 2008ko martxoaren 8rako" egitasmoaren barruan. Toti Martinez de Lezeak eta Arantxa Urretabizkaiak ekimen horretarako espreski sortutako kontakizunak irakurriko dituzte. Haiekin hitz egiteko parada ere egongo da. Algortako Argia Batzar Aretoan izango da (Trinitate kalea, 10 bis), 19:30ean. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. Erabili nahi dutenek 94 466 01 30 telefono zenbakira deituz eskatu beharko dute martxoaren 10eko 12:00ak aurretik.

Azkenik, martxoaren 3tik 15era bitartean, argazki erakusketa jarriko dute Erromoko Erakusketa Aretoan. "Munduko emakumeak, guri begira dauden aurpegiak" izenburua darama. Enrique Pimoulier Laspeñasen argazkiak dira.

«Talde honekin jendarte parekide baten defentsan herrian dagoen hutsetako bat estal dezakegu»

Bestalde, sortu berri den emakumeen plataforma bati buruzko informazioa dakargu. "Enclave de Ciudadanas por Getxo" izena jarri diote eta Udaletxeko Berdintasun Plana garatzeko lan egingo dute. Emakumeen gaitasunaren eskolako 22 lagunek osatu dute, bertan sortu baitzen ideia. Teresa Garciak azaldu bezala, "guztiok hartu dugu parte saioetan eta jendarte parekide baten defentsan herrian dagoen hutsetako bat estal dezakegula ohartu gara".

Hasierako helburua ondoko gaiei buruzko informazioa biltzea izango da: herrian biolentzia matxistaren benetako egoera, bizitza pertsonala, laborala eta familiarra bateratzeko zerbitzuak eta baztertutako taldeen egoera. Udaleko osoko bilkuran parte hartzen dute auzokideen iradokizunak plazaratzeko. Horregatik, auzokideek euren kezkak helaraztea nahi dute. ○

Informazio gehiago: enclavedeciudadanasporgetxo.blogspot.com.

Eraikin adierazgarriak

babesteko behin-behineko plana onartu du Udalak

Galeako Fortea ere babestuta dago

Arkitektura elementu adierazgarrien babeserako Plan Berezia onartu du, behin-behinean, Udaleko Gobernu Batzak. Bertan arautegia landu da, arkitektura-ondare berezian egin beharreko esku-hartzeak erregulatzeko, ondare hori artatzeko eta haren birgaikuntza ahalbideratzeko. Joseba Arregi Hirigintza zinegotziak dioenez, *"planaren asmoa da elementu eta eraikin babestuetan egin beharreko jarduerak mugatzeko tresna bilakatzea, Udala bera izateko lizentziak emango dituena"*.

Plan berrian, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak edo Udalak berak babestea erabaki duen elementu guztiak biltzen dira. Babeserako hiru alde finkatzen dituzte: Portu Zaharra, Andra Mari eta "Lorategi-hiri burgesa". Azken hori XX. mendearen hasierako txaletek eta jauregiek osatzen dute, eta gaur egun udalerriko elementu berezitzat jotzen dira.

Ia 100 eraikin babestu sartzen dira planean eta, guztira, 400 elementu. 10 mailatan sailkatu dituzte. Babes Bereziko kategorian, adibidez, 161 elementu daude, Begoña Muturreko Galeriak tartean. Toki Babeseko mailan, berriz, 151 elementu daude, horien artean 38 baserri.

Planaren bitartez, Udalak elementu horietarako ideia edo proiektu berriak onartu ahal izateko xedea duela esan du Hirigintza zinegotziak, horrela, *"denboran iraun dezaten; izan ere, arkitekto handi asko daude halako esku-hartze arkitektonikoak burutzeko gai direnak"*. Orain planari arrazoibideak aurkezteko epea zabaldu dute. Gero, Udaleko Osoko Bilkuran onartu behar dute eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak onetsi behar du. Orduan izango du eragina planak. ○

EZ DITUZTE TASAK JAITSIKO, OSOKO BILKURAK HORRELA ADOSTU BADU ERE

Udaleko Osoko Bilkurak hainbat tasa murriztea adostu arren, Imanol Landa alkateak ez ditu jeitsiko, "mozioak adierazpen izaera besterik ez duelako". Alkateak tasak bere horretan mantentzeko asmoa du. Proposamena egiteko, PP eta PSOEk ikerketa juridikorik eta ekonomikorik ez dutela egin ohartarazi du. Bi alderdiek epaitegira eramango dute auzia, "Osoko Bilkurak adostutakoa ez gauzatzeagatik".

ZABALDU MUNDURA EGITASMOA GARATUKO DUTE HERRIKO IKASTETXEETAN

Garapenerako Hezkuntza lehen hezkuntzako bosgarren mailan txertatzeko, Zabaldu Mundura egitasmoa abiatuko dute. Herriko ikastetxeetan eta ondoko herrietako zenbait eskolatan garatuko dute. Hezkuntza materiala prestatzea da helburua. Horretarako Zabalketak Nigerian izandako esperientzia hartuko dute oinarri. Bosgarren mailako gazteek beraien bizimodua alderatuko dute adin bereko Nigeriako gazteenarekin.

ALGORTAKO LUDOTEKA EGITEKO OBRA PROIEKTUA ESLEITU DUTE

Padre Felix de la Virgen kalean egingo dute Algortako ludoteka. Udalak 21.500 eurotan esleitu du lanak egiteko proiektua eta zuzentzeko kontratua. Ludoteka horrek Areetan zabaldu berri dutenak baino leku gehiago izango du umeentzat, biztanle kopurua ere handiagoa delako. Areetakoak 70 metro koadro ditu eta Algortakoak, 250 metro koadro izando du. Areetakoak legez, bazkide sistemaz funtzionatuko du. Proiektua bi hilabete barru prest eduki gura du Udalak. Ludoteka datorren urtean zabaldu gura du.

SAN iNAZiO
AUTOESKOLA
1951IN SORTUA
LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak
• igeltserotza orokorrean
• etxebizitzak eta lokalak
• gremioak
tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1• ALGORTA

Fredi Paia > Bertsolaria

"Diasporari kantatu eta harremanak sendotuko ditugu Amerikako inprobisazioagaz"



Fredi Paia

Bertsolari legez ezagunak dira Fredi eta Xabi Paia Euskal Herrian. Aste Santuan, ordea, beste urrats bat emango dute getxoztarrek, Hego Amerikara baitoaz kantatzera. Helburu argiak dituzte ekimen horregaz. Hango inprobisatzaileakaz eta euskal diasporagaz harremanak sendotu gura dituzte.

—Aste Santuan Hego Amerikara zoazte, bertsotan.

—Berez izenburua jarri diogu "Historiako bertso jirarik handiena", geografikoki ez baita inoiz egin horren bertso jira zabalik. Milaka kilometro hartuko du. Brasilen, Uruguayn eta Argentinan egongo gara. Martxoaren 13an hasiko gara eta hiru aste iraungo du birak. Maialen Lujanbio, Xabi eta hirurok joango gara.

—Nondik sortu zen bidaia egiteko ideia?

—Iaz paiadore argentinar bat etorri zen, Wilson Saliwonczyck, eta sei ekitaldi egin genituen. Orain paiadore argentinarren elkarteak gonbidatu gaitu bost euskal etxetatik bira egitera. Beraz, ez da plazer bidaia. Asmoa da bertso saioak egitea euskal etxeetan. Hitzaldi batzuk ere emango doguz euskal kulturaren eta bertsolaritzaren egoerari buruz.

—Hortaz, Wilson hona etorri zeneko balorazioa positiboa izan da, ezta?

—Bai, oso ondo egon zan. Besteetatik desberdina zen espektakulua egin genuen, gainera, berak eta guk biok. Euskal diasporaren gaia oso present egon zen ekitaldiotan. Memoria historiko hori berreskuratzen ahalegintzen gabiltza zentzu horretan. Otañoren bertsoak abestu genituen, Ameriketara joan ziren euskaldun pila bati buruzkoak, apur bat, gaur egungo mundu globalizatu honetan euskararen lurraldea zabaldu nahian. Han elkartuko gara Wilsonegaz.

—Saio guztiak elkarregaz egingo dituzue?

—Bakarrik ere egingo ditugu saio batzuk, euskara hutsean. Beste batzuk Wilsonegaz egingo ditugu, euskara eta gazteleraz, eta itzulpenak eginez.

—Zein asmorekin zoazte?

—Asmoa da euskal diasporari kantatzea eta harremanak sendotzea eurakaz zein Hego Amerikako inprobisazioagaz, batez ere gure diaspora dagoen tokietan. Berrikuntzarik nabarmenena izango da euskara ia Hego Amerika osora zabalduko dugula.

—Bertso saioez gain zer egingo duzue?

—Gelditu gabe ibiliko gara. Ibilaldi batzuk ere egingo doguz, Iguazuko urjauzietara, adibidez. Baina horra ere inprobisadoreren batek lagunduta, egun guztiak aprobetxatuko baititugu lanerako. Gainera, urte bi barru mundu mailako inprobisazio topaketak egingo dira Euskal Herrian. Orain lau urte egin ziren lehenengo topaketak Donostian, eta bigarrenak egiteko asmoa dago. UNESCOri begira ere izango dira, Inprobisazioaren fenomenoa zaintzeko neurriak har ditzan. Beraz, topaketak prestatze eta sendotze aldera ere bagoaz.

—Hainbat helburugaz zoazte orduan.

—Bai. Hau dena sortu zen duela lau urteko topaketak egiteko prestakuntza aurretik.

«Urte bi barru mundu mailako bigarren inprobisazio topaketak egingo ditugu»

Wilsonen irakasle bat etorri zen, Marta Sweet, gero Wilson etorri da. Hau jarraipena da, Bertsolari Elkartearen ildoetako bat mundu mailako harremanak baitira. Gure aldameneko herrietan ez dago antzeko adierazpenik, baina bai Amerikan. Beraz, bi helburu uztartuko ditugu: mundu mailako harremanetan sakondu, baita euskal diasporagaz ere. ○

Udaberriko kontzertuak

izango dira hemendik aurrera, udazkenean egiten zituztenak, musika klasikokoak

Philippe Graffi biolin joleak martxoaren 6an eskainiko du kontzertua

Udazkeneko kontzertuak lorez beteko dira aurten. Hemendik aurrera, udaberrian eskainiko dituzte Kultur Etxeak antolatutako musika klasikoko emanaldiak. XXIII. edizioa da aurtengoa eta Getxo Antzokian burutuko dituzte saio guztiak, arratsaldeko 20:00etan.

Martxoaren lehenengo astean gozatu ahal izango da biolinen, pianoen eta kontrabaxuen soinuaz.

Hilaren 4an, asteratean, ekingo diete aurtengo emankizunei. Egun horretan arituko dira Patrizia F. Colomer kontrabaxujolea eta Mario Lerena pianojolea. Udaberriko kontzertuen leen emanaldia ikusteko gonbidapena eskuratu beharko du bertaratu nahi duena. Otsailaren 18tik eskuragarri daude, gonbidapenok, Kultur Etxeetan. Hurrengo egunean Felix Ayok biolina joko du eta Emma Jimenezek, pianoa. Oraingoan hiru euroko sarrera ordaindu beharko da. Gonbidapenak legez, otsailaren 18tik eskura daitezke, Kultur Etxeetan.

Martxoaren 6an, berriz, Jeremy Menuhin arituko da pianoa jotzen, Pablo de Naveran biolontxeloa jotzen eta Philippe Graffi biolina jotzen. Sarrera, hiru eurokoa baita ere. Azken emanaldia martxoaren 7an izango da, ostirala. Orduan Orquesta Barcelona Sinfoniettaren txanda izango da. Aurrekoak legez, sarrerak hiru euroko balioa izango du. ○

GAZTEENTZAKO TAILER ETA IKASTAROAK MARTXOTIK EKAINA ARTE

Udaleko Gazte Zerbitzuak ikastaroak eta tailerrak antolatu ditu gazteentzat. Martxoan hasi eta ekainean bukatuko dira. Kantua, perkusioa, argazkilaritza digitala, txalaparta, sukaldaritza, jendaurrean berba egiteko teknikak, sabel dantza, kajoi flamenkoa, skate eta surfa ikasteko aukera izango dute 12 eta 30 urte bitartekoek.

Izena emateko:
944.660.353
gaztebulegoa@getxo.net
www.getxo.net

TURISMO BULEGOAK BISITA GEHIAGO JASO DU AZKEN URTEAN

Iaz 40.000 lagunetik gora igaro zen Turismo Bulegotik, 2006an baino %11'2 gehiago. Bisitari gehienak Euskal Herritik, Kataluniatik, Frantziatik, Madriletik eta Erresuma Batutik iritsi ziren. Abuztuan hurbildu zen turista gehien, 9.000tik gora. Turismo Bulegoa 1992an zabaldu zutenetik emaitzarik onena izan da. Aitor Soloeta zinegotziaren arabera, Gobernu taldeak eskaintza turistikoa hobetzen segitzeko lan egingo du herria arlo guztietan sustatzeko.

GAZTELERAZKO LEHENENGO DANTZA KOADERNOAK AURKEZTU DITU DANZA GETXOK

Danza Getxo Elkarteak dantza koadernoen bildumaren lehenengo bi ale aurkeztu ditu. Bere generoan gazteleraz argitaratutako bakarrak dira. Sylvia Fuentesek egin ditu, elkarte honen Dokumentaziorako eta Dantza Ikasketarako arduradunak. Urtean zehar beste argitaratzeko asmoa dute.

Informazio gehiago eta eskaerak:
danzagetxo@mail.com
627 47 26 21



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- ***1970**az geroztik altzariak diseinatzen.*
- *300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!***
- ***ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)*

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Itziar Insausti > Bizkaiko Txakolingileen elkarteko kidea

"Txakolina herri txikietako eta azoketako kontua dela uste du oraindik jende askok"

Mendibile Jauregian du Bizkaiko Txakolinak bere egoitza. Itziar Insausti bertako kidea da eta era berean Doniane Gorronda upeltegian egiten du behar. Azaldu digunez, 2007an 935.000 litro txakolin bakarrik ekoitzi dira eguraldi kaxkarra dela eta. Orain, www.txakoli.com plataforma aurkeztu dute.

Doniane Gorronda upeltegian egiten du behar Isaustik

—Zein da 2007ko uztaren ezaugarri nagusia?

—Oso urte konplikatua izan dela eta horrek eragotzi digu milioi bat litro gainditzea. Aurten landaketa berri asko jarri ziren martxan produkzioan, baina eguraldiak ez du lar lagundu eta errendimendua baxuagoa izan da. Bestalde, nabarmendu beharra dago hain kontra egon den eguraldi horri aurre egiten jakin dugula; duela 20 urte hauxe bera gertatu balitz ez genuen uztarik jasoko. Kontuan edukita zelako eguraldia izan dugun, kalitate onekoa da.

—*www.txakoli.com* plataforma aurkeztu berri duzue... sektorea gaurkotu nahian?

—Bai. Internet gero eta zabalagoa da munduan eta txakolinak ere eduki behar du bere presentzia. Oraindik jende askok dauka buruan txakolina herri txikietakoa dela, edo azoketako kontua etab. Erreminta honen bidez erakutsi gura dugu txakolina hori baino gehiago dela; jatetxeetan hartzen dugun edozein ardo bezalakoa. Atzerrira begira ere ondo datorkigu, gero eta gehiago saltzen baitugu.

—Nortzuk daude plataforma horretan sartuta?

—Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina. Momentuz, 28 upategi daude sarturik, eta horien artean, hiru deituretako guztizko produkzioaren %80 ekoizten dute. Dena dela, gainontzeko upategiek ateak zabalik dituzte.

—Behin eskaria eginda, zenbat denbora pasako da etxean egon arte?

—Asko jota, 48 ordutan edukiko dute bezeroek haien eskaera etxean.

—Atzerrira begira, zein herrik erosten du txakolin gehien?

—Amerikako Estatu Batuak dira gehien erosten dutenak; Norvegiak, Frantziak, Britainia Handiak... ere bai, baina gehiena geure artean gelditzen da. ○

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK
THE BEST UNE-UNEKO ERROTULOAK
ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu
e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Aterpe bulegoa

Antzerki, perkusio, larru eta **film laburren** lantegiak antolatu ditu Leioako gazte bulegoak

Larru lantegia eguenetan izango da

Aterpe gazte bulegoak jarduera ezberdinak antolatu ditu hurrengo hilabeteetan. Besteak beste, film laburren tailerra, perkusio tailerra eta larruaren lanketa.

Larru tailerra eguenetan egiten da eta martxoaren 13a izango da azken eguna: arratsaldeko 18:45tik 20:45etara burutzen dira ikastaro hauek.

Apirilean berriz, film laburren tailerra abiatuko da. Horrela, apirilaren 7tik ekainaren 9ra arte astelehen guztietan film laburrak nola egin azalduko dute adituek. Tailer honen ordutegia 19:00etatik 21:00ak arte izango da eta 25 euro ordaindu behar da. Interesatuek martxoaren 18ra arte dute izena emateko epemuga.

Apirilaren 7an ere perkusio tailerra hasiko da. Ikastaro hau ekainaren 16ra arte iraungo du eta astelehenetan burutuko da 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro honetan izena emateko azken eguna martxoaren 18an da da 25 euro balio du ere.

Antzerki tailerra apirilaren 10an hasiko da ekainaren 19ra arte eta euskara hutsean emango da. Aipatutako azken ikastaro hau eguenetan burutuko da 18:30etatik 20:30etara. Aurreko ikastaroek bezala, antzerki tailerrak 25 euro balio du eta martxoaren 18ra arte dago izena emateko aukera.

Bestalde, gogoratzea Leihosex aholkularitza sexologikoa dagoela bi astetan behin Kultur Leioako bostgarren solairuan. Honen ordutegia 17:30etatik 19:30etara da. ○

Harremanetarako: 94 607 25 72

POP-ROCK LEHIAKETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO JADA

Leioak VIII. Pop-Rock lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea ireki du. Interesatuek ezin dute diska bat baino gehiago editaturik eduki eta gutxienez bost abesti dituen CDa bidali behar dute Kultur Leioara martxoaren 14a baino lehen. Lehiaketak bi modalitate ditu: Pop-Rock eta Metal musika. Finala maiatzaren 9 eta 10ean ospatuko da eta irabazleak 1.800 euro irabazteaz aparte, CD bat grabatzeko aukera emango zaio. Euskaraz egindako abestirik hoberena eta herriko talderik onena ere sarituko dituzte.

LA MUJER DE LA SINMEMORIA, IKUSTALDI BERRITZAILEA

La Mujer de la Sinmemoria helburu pedagogiko ikuskizuna daukagu, bi zentzutan: batetik, María Teresa Leónen bizitza eta lana eman gura da ezagutzera; eta bestetik, publiko gaztea hizkuntza eszenikoetan sarrarazi gura da. Proposamen honek elementu berritzaile eta erakargarriak ere baditu, ez soilik gazteentzat, baizik eta publiko nagusiagoarentzat ere. Martxoaren 8an 20:0etatik aurrera ikusgai egongo da sei euroren truke Auditoriumean.

LEHIAKETA LIBURUA KALEAN DA

Kultur Leioak 2007ko irabazleak jasotzen dituen Lehiaketa liburua argitaratu du.

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
— Ingelera 4 urtetik aurrera.
— Frantsesa DBHn.
— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Tiro Eskola Escuela
Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea

Taberna eta kartutxo denda
Posta Kutxa 33 Leioa
Tel:94 633 81 59

Lantegi andana

Hurrengo hilabetetarako hamaika tailer edota ikastaro **antolatu ditu Erandioko Gazte Bulegoak;** eskaintzen artean txangoak, dantza exotikoak eta hasiberrientzako sukaldaritza aurki ditzakegu

Erandioko Gazte Bulegoak hainbat ekintza antolatu ditu hurrengo hilabetetarako, besteak beste: sanbo-defentsa pertsonala, eskulan ikastaroa; erlaxazio, musikoterapia eta meditazioa, azuleju mosaikokoa, hasiberrientzako sukaldaritza, dantza exotikoak, txangoak, teilak apaintzekoa eta ardo dastaketa.



Ardo dastaketaren lantegia maiatzaren 30ean izango da

Lantegi eta ikastaro andana prestatu ditu Erandioko Gazte Bulegoak datozen hilabetei begira. Hala, eskulan ikastaroa apirilak 4 eta 11, maiatzak 9 eta 23, eta ekainak 6 eta 20 egunetan emango dute eta 30 euroko (35 euro ez erroldatuentzat) prezioa du.

Glizerinazko xaboiak egiten ikasteko apirilaren 7an dute lehenengo hitzordua eta ekainaren 26an azkena. Hasiberrientzako sukaldaritza ikastaroa Bekoa ikastetxeko jantokian egingo da, eta apirilaren 8, 15, 22an eta maiatzaren 6, 13 eta 20an egingo da. Erandion erroldatuek 35 euro ordaindu beharko dute eta ez erroldatuek, ostera, 40 euro. Maiatzaren 1etik 4ra *Eurodsiney*rako txangoa antolatu dute. Autobusa Altzaga, Erandio Goikoa eta Astrabudutik igaroko da apirilaren 30eko gauean, Parisera maiatzaren 1ean heltzeko. Erroldatuek 180 euro truke egin dezakete txangoa eta ez erroldatuek, 225 eurorengatik. Bestalde, maiatzaren 25ean irteera egongo da Zornotzara, Ibilaldiaren jaiagaz gozatzeko. 16 urtetik gorakoei begirako ekimena da (3-4 euro).

Halere, aipaturikoak iragarri dituzten ekintzetako batzuk baino ez dira, guztira 15 ekintza baino gehiago antolatuko dirutzte eta; eskaintza zabala, beraz, Gazte Bulegoak dakarrena. Amaitzeko, ikastaro, irteera zein lantegietan parte hartzeko izena emateko epea jakiteko Gazte bulegora hurbiltzea edo bertara deitzea baino ez da egin behar.○

Datu batzuk

- **Sanbo-defentsa:** martxotik ekainera arte.
- **Eskulan ikastaroa:** apiriletik ekainera.
- **Dantza exotikoak:** apiriletik maiatzera.
- **Ardo dastaketa** maiatzak 30.
- **Apaintzeko tailerra:** ekainak 13.
- **WII Txapelketa:** maiatzak 17 eta 18.
- **Azulejo mosaikoa:** apiriletik ekainera.
- **Eva aparra:** maiatzak 16.
- **Teilen apaiketa:** apirilak 18.
- **Artisautza tailerra:** ekainak 27.

- **Informazio gehiago:** 94 602 58 91

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
94 491 13 37

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak
Lorategien zainketa
DEITU!
T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Martxoak 8

XVIII. Emakumeen jardunaldiak antolatu ditu Erandioko Emakumeen Elkarteak

Argazki erakusketa udaletxeko erakusgelan ipiniko dute

XVIII. Emakumeen jardunaldiak antolatu ditu Erandioko Emakumeen elkarte Sozio-Kulturalak.

Horrela, martxoaren 3an Txinbito itsasontzian txangoa egongo da Erandioko ontzilekutik Bilboko Uribitartera arte. Hurrengo egunean Urteko Batzar Nagusiko bigarren deialdia burutuko dute 18:45etatik aurrera Erandioko azoka zaharrean. Martxoaren 5ean "*Eskubideetatik eginbideetara*" mahai-ingurua egingo dute 18:30etan leku berean.

Eguenean berriz, bazkaria antolatu dute eta horren ostean dantzaldia: bazkaltzeko, 14:00etan lotu dira metro geltokiko enparantzan, eta bertatik Erreka Alde jatetxera joango dira partehartzaileak. Bariku arratsalderako, jaia eta oparien banaketa egingo dute arratsaldeko 18:30etatik aurrera. Azkenik, martxoaren 8an, emakumearen nazioarteko egunean, kontzentrazioa burutuko dute Erandioko emakumeek goizeko 12:00etan udaletxeko plazan, eta jarraieran metroko enparantzan.

Bestalde, aste osoan zehar argazki erakusketa bat egongo da emakumea protagonista delarik. Erakusketa hau, Mikel Alvia Palacios idazleak eta Jose Miguel Vidal Garcia argazkilariak egin dute eta eguerdiko 12:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai Erandioko udaletxeko erakusgelan. ❍

UDAL LIBURUTEGIETAKO INSTALAZIOAK HOBETUKO DITUZTE

Uda baino lehenago udalak liburutegietako instalazioak hobetuko dituzte. Altzagako kasuan, CD eta DVDak zein aldizkari eta nobedadeak gordetzeko altzariak erosiko dituzte eta azoka txikiaren ondoko lokal batera eramango dituzte. Astrabuduaren kasuan, ordea, altzari berriak erosetaz gain, gela orokorra eta umeentzako gela handituko dituzte. Gela horretan gainera, 0 eta 4 urte bitarteko umeentzako "*txokoa*" egingo dute kuxinez beteta. Bestalde, lapurretak sahiesteko mekanismoa liburutegi bietan instalatzeko aukera aztertzen ari da udala.

ANIMALIAK TXARTO TRATATZEAGATIK 15.000 EUROKO ISUNA

Animaliak gaizki tratatzea 15.000 euroko isunagaz zigortu daiteke udal-ordenantza berriaren arabera. Dokumentuak zigor gogorrak jasotzen ditu animaliak zaintzeko oinarrizko betekizunak betetzen ez dituztenei. Araudiak huts egite larritzat jotzen ditu animaliak jendaurreko espektakuluetan erakustea, abandonatzea edota kolpeka zein pozoinduta hiltzea. Araudi honek gainera, txakur "*arriskutsuak*" deiturikoen hugalketa ere zigortzen du baldin eta hori arrazoi ekonomikoak direla eta egiten bada. Txakur mota hauen kopurua asko hasi da herrian eta horregatik, jabeei eskakizun batzuk eskatuko zaie aurrerantzean. Txakur guztiak gainera, erroldatu beharko dira alabeharrez eta berau identifikatzeko chip bat jarriko diote belarriaren atzean.

AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA GAZTE BULEGOAREN EKIMENEZ

Hamabostaldiro, barikutean 18:00etatik 20:00etara aholkularitza sexologika izango da drogomenpekotasuneko gelan.

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

3.500 KILO LEHENGAI SOPELATIK SAHARAKO BIDEAN

Sopelako Nuyum elkarteak 3.500 kilo lehengai eskuratu ditu Saharako IV. Karabanaren baitan. Lehengai hauen artean azukrea, olioa, lekak, arroza, konpresak eta arropa bezalako produktuak daude. Horrez gain, osasun materiala ere oparitu dute herritarrek, hala nola, esku-ohea edota X Izpietako aparatua. Lehengaiak eskuratzeko Zipiriñe, Iberre, Ander Deuna, Berangoko Eroski eta Plentziako eskolaren laguntza jaso du; Hall kulturalean ere herritar ugarik utzi ditu lehengaiak. Sahararen aldeko elkartea oso pozik azaldu da, Euskal Autonomia Erkidegoan dohaintza hau murriztu den arren, Sopelan igo baita. Otsailaren 16an 13 kamioi abiatu ziren sahararrek Argelian duten errefuxiatu gunera.

OTSAILAREN 15ETIK ABIAN DA SOPELSEX

Hamabostean behin egongo da Sopelako Gazte Bulegoak sustatutako aholkularitza sexologikoa. Igor Erauzkin profesionalak sexuari buruzko zalantza guztiak argitzen saiatuko da Kultur Etxeko lehenengo solairuan, 18:00etatik 20:00ra bitartean. Kontsultak telefonoz eta emailez ere egin daitezke.

Harremanetarako: 94 676 17 43
sopelsex@sopelana.com

SOPELAKO UDALAK 2008KO AURREKONTUAK ONARTU DITU

Sopelako gobernuburu den EAJk aurkeztutako aurrekontuek PSE eta EBren oniritzia jaso zuten. EAk eta PPk aldiz, horren kontra bozkatu zuten. Horrela, pasa den urteagaz konparatuta, %18,9 gehiagoko aurrekontua erabiliko du aurten tokiko gobernuak, guztira 20.378.336 euro.

Txirrindularitza Elkartea

Talde indartsuakaz datorkigu Ugeraga Txirrindularitza Elkarteak



Ugeragako aurtengo txirrindulariak

Otsailaren 17an Ugeraga Txirrindularitza Elkartearen talde ezberdinak aurkeztu zituzten jendaurrean. Maila guztietan dauka taldea Ugeragak: eskoletako taldea, kadeteak, gazte mailako taldea, maila guztietako emakumeen taldeak eta 23 urtetik beherako taldea. Guztira, 44 dira Ugeragaren baitan dauden txirrindulariak.

Emilio Ramosek Sopelako Txirrindularitza Elkarteko lehendakariak aitortu duenez, azken boladan Bizkaiko beste herrietatik hartu behar izan dituzte txirrindulariak "*herrian ez dagoelako zaletasunik*". "*Dirudienez, Sopelako gazteek kirol ez hain gogorrak nahiago dituzte txirrindularitza baino*".

Txirrindularitza Elkarteko lehendakariaren ustez, gazte mailan hiru onenen artean dago aurtengo taldea: "*David Hidalgok eta Jon Larrinagak lasterketa ugari irabaziko dituztelakoan gaude; gainera, beste taldekideak onak izango dira Hidalgo eta Larrinagari laguntzeko momentuan*". 23 urtetik beherako mailan ere talde eraginkorra dagoela aurten gehitu du Ramosek: "*Lehendakari saria irabazteko tinko borrokatuko dugu*".

Bestalde, martxoaren 3an Suminan Koplad Unidos afizionatuen taldea aurkeztuko dute Bilboko Hesperia Zubialde hotelean arratsaldeko 19:00etan. ○

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Ander Trujillo > Bitxi konpontzailea

"Bitxiak konpontzen kontu handiz ibili behar zara, balio ekonomikoa ez ezik, balio sentimentala ere baitute"

Ander Trujillo

Ez da oso ohikoa bitxiak konpontzen dituen langile bat topatzea. UKak topatu du, ordea. Ander Trujillo sopeloztarrak bederatzi urte inguru daramatza bitxiak konpontzen. Gogorarazi digunez, amak bultzatuta ekin zion bitxiak konpontzeari. Egun, Bilbon du bere tailerra.

—Zer nolako bitxiak konpontzen dituzu?

—Denetarik. Eskatzen didaten guztia konpontzen dut nik; bitxi klasikoetatik imitaziozko bitxietara. Enkarguetatik bizi naiz, baina batez ere bitxi-dendentzat egiten dut behar. Bitxi-dendak zer gura duen esan eta nik hori egiten dut.

—Ez dago jende askorik bitxiak konpontzen jarduten duenik...

—*Zorionez* horrela da, bai. Bitxigintza egoera oso txarrean dago, gero eta txarrago gainera: lan asko egin behar da diru apur bat irabazteko. Bitxien konponketa oso txarto ordainduta dago.

—Nola hasi zinen bitxien konponketan?

—Ni betidanik izan naiz trebea gauza hauetan. Amak bultzatu ninduen, bitxien konponketan sartzeko ona izango nintzelakoan. Eta azkenean, gauza batengatik edo besteagatik honetan jarduten hasi nintzen.

—Nortzuk dira bezeroak?

—Batzuetan baten bat zuzenean etortzen bada ere, normalean bitxi-dendak dira nire bezeroak. Bitxi-dendek niregana jotzen dute aurretik eskatzen dieten konponketak egin ditzadan.

—Zein materialegaz egiten duzu behar?

—Urre zuria, urre oria eta zilarra batik-bat. Platinoa berriz, goi mailako ohituretarako da.

—Zenbat urte daramazu bitxiak konpontzen?

—Bederatzi urte tailerretik tailerrera, bakoitzetik onena ezagutzen; lanbide honetan mugitu beharra dago bestelako gauzak ezagutzeko... lagun baten bitartez nonbait sartzen zara, ondoren beste lagun baten laguntzagaz beste tailer batean... Hala eta guztiz ere, ona izan behar duzu, bestela ez duzu zer eginik. Ordu asko eman behar dira honetan; badirudi erraza dela baina orduak igaro behar dituzu teknika ikasteko.

—Nola ikasten duzu?

—Jarduten. Kilometroak egin behar dituzu bitxiak konpontzen ikasteko. Azken finean, akatsetatik ikasten duzu. Teknika ere ikasi behar duzu, noski, baina teknika *sekretua* da, irakasleek eurentzako uzten dute hori,

«Kilometroak egin behar dituzu bitxiak konpontzen ikasteko»

eta zuk zeure kabuz ikasi behar duzu. Baina esan beharra daukat irakasleez ezin naizela kexatu, oso onak izan baitira.

—Akats larriren bat eduki al duzu?

—Bai, esan dudan moduan, akatsak eduki ditut. Baina bitxiekin kontu handiz ibili behar duzu, askotan milaka euroko pieza bategaz ari zarelako. Diru kopuruaz gain, maiz, asko balio ez duen arren, balio sentimentala du, aitite edo amamarena zelako. ○

Harremanetarako: 94 415 52 06

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
- *Eskolaz kanpoko ekintzak*
- *Maila guztiak*
- *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
- *Talde txikiak*
- *Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak*

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak

RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA ikastola

- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta berrikuntza*

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

HAURRENTZAKO MASAJE TAILERRA

Urtebete baino gutxiago duten umeentzako masaje tailerra antolatu du Udalak. Garapen fisiko eta emozionalerako onuragarria da haurrentzako masajea; zirkulazio-sistema bizkortu eta arnasketan eta digestioan laguntzen du, besteak beste. Tailerra apirilaren 4tik 9ra bitarteko ostiraletan izango da, arratsaldeko 5etatik 6:30era. Izena emateko epea martxoaren 7ra arte egongo da zabalik, Kultur Etxean. Leku kopurua mugatua izango da.

HAURTZAINDEGI BERRIA ZABALDUKO DUTE

Datorren ikasturtean, haurtzaindegi publikoa jarriko dute martxan Berango-Merana Herri Ikastetxean. Honek 0-2 urte bitarteko 68 umerentzako lekua izango du eta 30 metro koadroko 6 gelatan banatuta egongo da. Matrikulazio epea maiatzean zabalduko da eta eskaerak udaletxean egin ahal izango dira.

HERRIKO GAZTEEN EKINTZA SOLIDARIOAK

Hainbat ekintza solidario burutu dituzte Berangoko gazteek 2007an zehar. Horien guztien berri emateko, argazki bilduma ikusgai egongo da martxoaren 3tik 31ra Berangoetako Kultur Etxean. Gazteek eta Udalak eskerrak eman gura dizkiete proiektu hauetan era batean zein bestean parte hartu duten berangoztarrei.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
94 491 13 37

Emakume langilearen

eguna dela-eta ekintza sorta prestatu du Udalak martitzenetik hasita

Indiako emakumeek bizi duten egoerari buruzko hitzaldia eskainiko dute hilaren 4an

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Diotenez, New Yorkeko ehungintza lantegi batean emakume batzuk euren eskubideen alde matxinatu ziren 1857. urtean. Fabrika hau erre egin zuten eta bertan zeuden emakumeak hil egin zituzten. Ospakizunetarako eguna baino, aldarrikapenerako parada izan ohi da martxoaren 8a.

Egun berezi hau dela eta, hainbat ekintza antolatu ditu Berangoko Udalak hilaren 4tik hasita. Egun horretan bertan, Indiako emakumeek bizi duten egoerari buruzko hitzaldia emango du Vicente Ferrer Erakundeak, arratsaldeko 7etan. Hurrengo egunean, *La meva Mare* antzerki emanaldia izango da 19:30ean Bego Clown konpainiaren eskutik. Martxoaren 6an, ipuinen garrantzi pedagogikoari eta hauetan aurki ditzakegun eduki sexistak ekiditeko teknikei buruzko tailerraren txanda izango da, 19:00etan. Ekintza hauek guztiak Berangoetako Kultur Etxeko areto nagusian izango dira. Azkenik, martxoaren 7an, Idoia Somoza sopranoaren kontzertuaz gozatu ahal izango da, arratsaldeko 18:30ean Berangoko Eskolan. Amaitutakoan, pastelak eta kafea emango zaizkie bertaratzen direnei. ○

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

BATXILERGOAK
· TEKNOLOGIKOA
· NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
· GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

Ramon Anasagasti Ibarra> Kultura zinegotzia

"Ordenantzen urteurrena ospatzen lagunduko digu Eusko Ikaskuntzak"

Ramon Anasagasti

Pertsonek legez, herriek ere urteak betetzen dituzte. Oraingoan Plentziaren txanda da. Herriaren Sorrera Agiria XIII. mendekoa bada ere, aurkitu diren Hiribilduaren lehenengo Udal Ordenantzak 1508 eta 1524koak dira eta, beraz, 500 urte betetzen dituzte aurten. Ospakizunak egunak merezi dituen bezalakoak izan daitezen, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean jarduteko akordioa sinatu du Udalak. *"Beraiek proposatu ziguten. Eusko Ikaskuntzan Gonzalo Duo dago lanean, Plentziako semea den eta herriko historiaren inguruan lan handia egin duen gizona"*, esan digu Ramon Anasagasti Plentziako Kultura zinegotziak.

Izaera pribatuko erakunde zientifiko-kulturala da Eusko Ikaskuntza, 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek sortua, euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa. Euskal kulturaren balio tradizionalak finkatzea, kultura goratzea eta hedatzea eta euskal kulturako eskualdeetan bizi diren pertsona guztien mesederako izango diren balio berriak sortzea du helburu.

Ospakizunei hasiera emateko, hitzaldi sorta prestatu dute uztaileko 2. asterako. *"Hiribilduaren inguruko Elizateak 1500. urtean"*, *"Plentziako Udal Ordenantzak 1508an"*, *"Ontzigintza tipologia Kantauri Itsasoan"* eta *"Plentziako Hiribildua 1500. urtean"* izango dira hilaren 8tik 11ra bitartean Goñi Portalen egongo diren hitzaldien izenburuetako batzuk: *"Plentziako historia ezagutu nahi duten herritarrak hurbiltzea espero dugu"*. Honez gain, bisita gidatu berezian parte hartzeko aukera egongo da uztailaren 12an. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatea Plentziako historiaren inguruan jardungo da udako ikastaroetan. ○

«Uztaileko 2. asterako hitzaldi sorta eta bisitaldi gidatua antolatu ditugu»

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

AJURIA
TABERNA
Andrés Cortina 2
ALGORTA

EMAKUMEEN ASTEA BARRIKAN

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta ekintza ezberdinak antolatu ditu Barrikako Udalak. Martxoaren 6an *La Trouppe de Mercedes* antzezlana eskainiko dute arratsaldeko 18:00etan eta ondoren kafe-tertulia egingo da. Martxoaren 8an, Uribe Kostako Mankomunitateko Emakumeen Txapelketa Kirol Anitza garatuko da paddel pistetan, 9:00etatik 14:00etara. Honez gain, umeentzako jarduerak izango dira 11:30ean. Azkenik, *Kandelen argipean* helduentzako ahozko narrazio emanaldiaz gozatu ahal izango da hilaren 14an, 18:00etan.

GAZTEENTZAKO TXANGOAK MARTXOAN

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako txango sorta prestatu du Uribe Kostako Mankomunitateak martxoaren 25, 26 eta 27rako. Donostia, Pasaia, Sobrongo abentura parkea eta Legazpi izango dira helmugetako batzuk.

Informazio gehiagorako: 94 676 63 43

GORLIZKO TOPONIMIA BEKA EMAN DUTE

Alain Romaña Larrazabal eta Egoitz Olabarrieta Askazibar bikoteak eskuratu du Gorlizko toponimia batzeko beka. Bikoteak 18.000 euro eta 12 hilabeteko epea izango du lana egiteko, Euskaltzaindiako Onomastika Sailaren laguntzarekin. Bukatutakoan, Gorlizko Udalak ikerlana argitaratu eta erabiltzeko aukera izango du.

URDULIZ

Atxarteko harrobian eraikiko dute kanposantu berria

Urdulizko hilerriaren kanpo aldea

Urtez urte haziz doa Urdulizko biztanleen kopurua. Horren ondorioz, etxebizitzek hartzen duten esparruak gora egin du eta hilerria herriaren erdian aurkitzen da gaur egun; gainera, txiki gelditu da . Hau dela eta, kanposantu berria eraikitzea erabaki du Udalak. 2008rako aurrekontuaren zati garrantzitsua eramango du proiektu honek, 500.000 euro, hain zuzen ere. Metroa lurperatzea, haur-eskola berria, kiroldegia eta futbol zelaiaren amaiera lanak izango dira beste inbertsio garrantzitsuenetako batzuk.

Hilerri berria, Atxarteko harrobi zaharrean eraikiko dute, Mendiondo auzoan. Harrobiaren ertz garaiek mugatuko dute eta horrela, kanposantuak bat egingo du inguru naturalagaz. Erdian bidexka bat izango duten kubo formadun eraikin txikiek osatuko dute estruktura nagusia, hauetako bakoitzean 16 horma-hobi egongo direlarik. Kapera eta aparkalekua ere izango ditu. Modernotasuna eta natura uztartu nahi dituzte kanposantuan, otoitz egiteko leku aproposa sortuz. ❍

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

Bai Euskarari Zuzentaguria bai Bidean
AENOR ER Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR Gestión Ambiental CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tel. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz

Mar. 3 - mar. 17

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: **agendauk@aldizkaria.biz** • Tel.: **94 491 13 37**

ERAKUSKETAK

ERANDIO

‣ **Emakumea protagonista.** Erandioko azoka zaharra. Martxoaren 4tik 7ra arte.

GETXO

‣ **Munduko emakumeak. Begiratzen diguten aurpegiak.** Erromoko erakustaretoa. Hilaren 15era arte.

‣ **Edgar Ferreren olioak.** Algortako erakustaretoa. Martxoaren 29ra arte.

LEIOA

‣ **Bosteko.** Erakusketa aretoa. Martxoaren 10etik apirilaren 6ra arte.

ZINEMA

GETXO

‣ **Naturaleza muerta.** Getxo Antzokia. Martxoak 7, barikua. 22:30. Sarrera: 2,90 euro.

‣ **Alvin y las ardillas.** Getxo Antzokia. Martxoak 9, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Sarrera: 2,10 euro.

‣ **Lío embarazoso.** Getxo Antzokia. Martxoak 12, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

‣ **Los testigos.** Getxo Antzokia. Martxoak 15, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

LEIOA

‣ **Grbavica, el secreto de Esma.** Auditorium. Martxoak 4, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

‣ **El buen nombre.** Auditorium. Martxoak 11, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

‣ **La boda del monzón.** Auditorium. Martxoak 18, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

‣ **Mi vida sin mi.** Auditorium. Martxoak 25, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

© CARLOS MARCOTE

‣ **Erakusketa**

Bosteko ´08

XI. edizioa ospatuko du Bosteko erakusketak. Oraingoan, Iñaki Cerrajería eta Carlos Marcote arabarren margoak eta Patxi Cobo bizkaitarraren argazkiak aurkezten ditu. Alicia Fernandez historialari eta arte kritikariak aukeratu ditu hiru artista hauek kontutan hartzeko ibilbidea dutelako: Carlos Marcote aguraindarrak errealismoz, paisaia eta erretratuen sentikortasun handiz betetako pintura egiten du. Iñaki Cerrejeria gasteiztarrak, berriz, kolorearen indarra, abstrakzioan eta keinuan oinarritutako konposizioak pintatzen ditu. Azkenik, Patxi Coboren irudien abiapuntua lekuen gaineko esperientzia da; izan ere, sarritan, gizakiaren ekintzak eraldatu egiten ditu.

• **Non:** Erakusketa aretoa • **Noiz:** Martxoaren 10etik apirilaren 6ra arte.

ANTZERKIA

LEIOA

‣ **Kafe Huts.** Auditorium. Martxoak 5, eguaztena. 20:00. Sarrera: Gonbidapenagaz.

‣ **Los misterios del Quijote.** El Brujo. Auditorium. Martxoak 7, barikua. 20:30. Sarrera: 15 euro.

‣ **Bolboreta.** Títeres Trompicallo. Auditorium. Martxoak 9, domeka. 12:00. 4 euro.

‣ **La mujer de la sinmemoria.** Hojarasca Danza. Auditorium. Martxoak 8, zapatua. 20:00. Sarrera: 6 euro.

GETXO

‣ **La troupe de Mercedes.** Burbujas. Getxo Antzokia. Martxoak 14, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

‣ **El otro lado.** Charo Lopez, Eusebio Lazaro eta Jose Luis Torrijo.. Getxo Antzokia. Martxoak 15, zapatua. 22:00. Sarrera: 15/12 euro.

ERANDIO

‣ **Ezker-eskuma.** Josu Murueta Kultur Etxea. Martxoak 6, eguena. 20:00.

MUSIKA

LEIOA

‣ **Bluesjazz zirkuitoa: Begoña Bang-Matu.** Cafe Ambigu. Martxoak 14, barikua. 22:00. Sarrera: 6 euro.

‣ **Cesar Uceda.** Auditorium. Martxoak 29, zapatua. 20:00.

GETXO

‣ **Patrizia F. Colomer eta Mario Lerena.** Getxo Antzokia. Martxoak 4, martitzena. 20:00. Gonbidapenagaz.

‣ **Felix Ayo eta Emma Jimenez.** Getxo Antzokia. Martxoak 5, eguaztena. 20:00. Sarrera: 3 euro.

‣ **Jeremy Menuhin, Pablo de Naverán eta Philippe Graffi.** Getxo Antzokia. Martxoak 6, eguena. 20:00. Sarrera: 3 euro.

‣ **Barcelona orkestra sinfonikoa.** Getxo Antzokia. Martxoak 7, barikua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

‣ **Rouaille-Buaille.** The Piper´s Irish Pub. Martxoak 14, barikua. 22:00.

BESTEAK

GETXO

‣ **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxea. Martxoak 14, barikua. 19:00.

ERANDIO

‣ **Bidaia txinbito itsasontzian.** Erandioko ontziralekua. Martxoak 3, astelehena. 11:00.

‣ **Bazkaria eta dantzaldia.** Metro geltokia. Martxoak 6, eguena. 14:00.

‣ **Jai handia eta opariak.** Azoka zaharra. Martxoak 7, barikua. 18:30.

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Motor mitikoak

Motorzaleek erakusketa ederra izan dute gozagai oraintsu arte Leioako merkatalgune handian. Harley-Davidson marka ezaguneko 16 motor egon dira ikusgai Artean, izen berezi baina askorentzat ezaguneko hurrengo motorrak jarri dituzte erakusketa horretan, berbarako: V- Rod Destroyer, Sportster Custom, CVO Screamin' Eagle, Fat Boy, WLA 1941, Road King Custom, Street Glide, Bobber, Street Rod, Street Bob, Night Ster, Night Road Special, Sportster Low etab. Irudiotan dituzue horietako batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**




HARLEY-DAVIDSON

CORTEFIEL





REBAJAS





Kupula

eraikitzen

Ez da, ez, pelikuletako asmatzaile zoroen asmakizun arraro horietako bat. Ez da Lurraren barne-muinak irudikatzeko egindako burdinazko esfera erraldoi bat; ezta inuiten etxe ikaragarri handi baten hezurdura edota egitura ere, ez. Irudiotan duzuena Mesedeetako elizaren kupula da, eraikitze lanetan. Gaur egun han goian hain dotore, indartsu eta seguru antzean dakusagun kupularen barne-egitura, hain zuzen ere. Ezin izan dugu jakin noiz atera zen argazkia, baina bihartik aurrera begirada ezberdinagaz begiratuko diogu elizari.

Mesedeetako elizaren kupula, Areeta.
Getxoko Liburutegiak utzitako argazkia

***Cirque du Soleil*. Magikoa, beste mundu batekoa dirudi. Artistak asiarrak direla uste du jende gehienak. Baina ez da horren urrun joan beharrik. Getxoko neska bat dabil bertan. Esti Lopez dantzaria da eta akrobata izateko prestatzen dabil. Laster bukatuko du lan hori. Bere bikoteak, ordea, hamazortzi urte daramatza zirkuan, Gerry Regitschnig pailazoa da. Berez Austriarra da eta zirkuan ezagutu zuen Esti, ikuskizuna Bilbora ekarri zutenean, orain hiru urte. Jende xehearentzako liluragarria den mundua pentsatu baino arruntagoa dela diote bi lagunek. Orain Japonian daude, baina hara joan aurretik, gurekin solas egiteko tartetxoa egin zuten.**

Esti eta Gerry

Eguzkiaren zirkuaren dirdira

Testua: **Zuberoa Iturburu /** Argazkia: **J.M. Martinez "Bubu"**

—Biok parte hartzen duzue zirkuan?

E—Gerryk bakarrik, ni prestakuntza prozesuan nabil oraindik. Bost urtetatik dantzan nabil, beti egin dut dantza klasikoa eta garaikidea. Orain akrobata izateko ikasten nabil.

—Eta Gerry pailazoa da.

G—Bai, halaxe da.

E—Beste hiru pailazogaz egiten du antzezpena. Zirkuak kontratatu zuen *Dralion* ikuskizunean parte hartzeko. *Dralionen* 170 bat lagun dira guztira. Mundu osoko pertsonak daude: Txina, Errusia, Brasil, Argentina, AEB...

—Gerry, nola hasi zinen *Cirque du Soleil*en?

G—Suitzan beste zirku batean lanean nenbilela, 1990ean, *Cirque du Soleil*eko arduradunak bertara hurbildu ziren artistak ikuskatzera. Izan ere, ordura arte Suitzakoa zen munduko zirkurik onenetakoa, puntapuntakoa. Las Vegasera joatea proposatu zidaten, ikuskizun berri batean parte hartzeko. Ikuskizun finkoa zen, antzoki batean. Bi urtez egon nintzen han. Hortik aurrera bestelako ikuskizunetan parte hartu dut, baina beti izan dira ibiltariak.

—Eta zu Esti, noiz hasiko zara antzezten?

E—Oraindik ez dakit. Laster azterketak eta frogak egin behar ditut, hautaketa prozesu osoa pasa behar dut. Ea zer gertatzen den; ea prest nagoen edo prestatzen jarraitu behar dudan.

—Jende asko dabil prestatzen?

E—Bai, uneoro dabil jendea prestaketa lanetan. Batzuk etorri, besteak joan, mugimendu handia dago. Nik esaten didatena prestatzen dut, dantza eta akrobaziak egiten ditut eta gero eurek esango didate, gogotsu nabil, eta ilusioz beteta. Beti izan da nire ametsa, dantzatzea baita gustuko dudana.

—Nola funtzionatzen du zirkuak, ikuskizun bera egiten duzue partaide berberekin?

E—Bai, horrela gertatu ohi da beti, harik eta norbait botatzen duten arte, edo jarraitu nahi ez duen arte. Egia esan, beste edozein enpresaren modukoa da zentzu horretan.

—Gerry, zer dago pailazo baten atzean; hots, margoa eta trajea kentzean?

G—Beno, pailazo bakoitza desberdina da. Ni ez naiz sudur gorria daramatenen dauzkadan ezaugarrien arabera, pentsatuta dituzten pertsonaiak egin ditzakedan. Oso isilpean daramate hori guztia eta ez dakigu zehatz-mehatz zeren bila dabiltzan. Loteria moduko bat dela esan daiteke. Baina ni modukoa, aktore antza gehiago du egiten dudanak. *Tricicle*ren estilora gehiago hurbiltzen naiz. Hori bai, umorea lantzen dut beti ere. Jendeak uste du pailazoa uneoro barregarria dela, bere bizitzan beti dela

"Uste dute pailazook beti dibertigarriak garela, baina egunero jendeari barre eragin odoren, nekatuta geratzen gara"

dibertigarria edo barreak eragiten dabilena. Baina egunero taulagainean antzezpenak egin ondoren eta jendeari barre eragiten saiatu ondoren, neka-neka eginda geratzen gara pailazook. Beraz, etxera iritsitakoan, batzuetan nahiago dut bakarrik egon, inorekin hitz egin gabe, lasai-lasai. Izatekotan, niri barre eginaraz iezadatela. Barre egitea ere oso gustuko dut, entreteni nazatela, ez beti ni ibili behar izatea besteak entretenitzen.

—Beti izan zara pailazo?

G—Antzerki klasikoa ere zerbait egin nuen gaztetan, baina ez nuen batere gustuko antzeztearen alde tragikoa. Nahiago dut umearena egitea; heldua naiz, baina umearena egiten.

—Donostian orain gutxi egon da *Cirque du Soleil.*

E—Bai, beste ikuskizun bat egin du. Zirkuak hamahiru ikuskizun egiten dihardu uneotan, horietako batzuk ibiltariak dira eta beste batzuk, finkoak, antzokietan. Gu Japonian gabiltza, urte eta erdi iraungo duen bira egiten. Bi aste izan ditugu libre eta etxera itzultzeko baliatu ditugu. Ekaina arte egongo gara Japonian. Orduan hiru aste opor izango ditugu eta hona itzuliko gara. Gero Australiara joango gara urtebeteko bira egiteko.

—Eta birak beti dira horren luzeak?

E—Beno, herrialde berean inoiz ez dugu hain bira luzea egin. Baina kontuan izan behar da Japonian japoniar asko eta asko dagoela. Beraz, denbora gehiago eskatzen du. Europan, berriz, bi urteko bira izan zen Europa osorako.

—Australiaren ondoren, nora?

G—Ez dakigu ziur. Hego Amerika edo Zeelanda Berrira izan liteke. Baina guk biok Euskal Herrira itzuli eta bertan geratzeko asmoa dugu. Zirkua utziko genuke tarte batean. Getxon zirku eskola bat muntatzea pentsatzen nabil, ez baitago inguruan horrelako ezer. Halere, oraindik ideia bat besterik ez da.

—Eta zer moduz doakizue?

G—Nahiko ondo, baina Japonia pixka bat luzea egiten ari da. Inoiz ez gara egon hainbeste denbora herrialde berean. Eta Japonia zeharo desberdina da, Europarekin konparatuta. Kosta egiten zaigu lana. Pailazo moduan oso zaila da japoniarrak entretenitzea. Umorea desberdina da.

—Biran ez zaudetenean, zer egiten duzue?

G—Japoniatik oso merkea da bidaiatzea. Beraz, oporrak dauzkagunean, inguruko herrialdeak ezagutzera goaz. Tailandian, Vietnamen eta Txinan egon gara. Bertan gaudela probetxatzen dugu, horrelako beste aukerarik ez dugulako izango. Hori bai, egun batzuk gehiago izanez gero, etxera, oso faltan baitugu.

“Pailazo moduan oso zaila da japoniarrak entretenitzea, umorea desberdina da, hileta batean antzeztea bezalakoa da”

—Euskal Herrian nolako harrera du zirkuak?

G—Ni Bilbon bakarrik aritu naiz. Bertako jendea esna dago, batez ere Japonian orain dugun harrerarekin konparatuz gero. Han hileta batean antzeztearen modukoa baita. Nahiago nuke hemen antzeztu.

E—Bilbo ondoren Sevillara joan ziren, eta flipatu egin zuten hango jendearekin. Oso beroak dira eta eskandinaviar herrietako artista hauek txundituta zeuden ikusleek ematen zieten indarrarekin. Orain Japonian, ordea, isil-isilik daude denak, ez da ezer entzuten. Euskal Herrian, behintzat, palomiten zarata entzuten da, sartu eta ateratzen den jendearena, zurrumurruak... Baina han, ezer ere ez. Hori bai, bete-beteta dago, egunero.

“Bi urte barru zirkua utzi eta Getxon zirku-eskola muntatzea pentsatzen nabil, ez dagoelako horrelako ezer”

—Esti, noizbait egon zara Euskal Herrian zirkuko partaide gisa?

E—2005ean hasi nintzen zirkuan, ikuskizun hau ekarri zutenean Bilbora. Aretozain gisa hasi nintzen. Dantzaria nintzen, nire taldea nuen, baina ez nuen akrobaziarik egiten. Ikastaroren bat akaso, baina oso gutxi. Zirkoan bertako partaideekin harremana sortzen da eta horrela ezagutu genuen elkar Gerryk eta biok. Horren ondoren, bertan parte hartzeko aurkeztu nuen neure burua eta deitu zidaten. Baldintzak eduki nitzakeela esan zidaten eta onartu ninduten. Baina oraindik ikasten jarraitzen dut. Pozik nago, asko ikasten ari bainaiz. Gutxi falta zait bukatzeko.

—Gerry, orain bi urte iritsi zinen lehen aldiz Euskal Herrira?

G—Ez, zirkuarekin etorri aurretik, bakarrik etorri nintzen. Alemanian geundela, opor egun batzuk izan nituen eta gero Madrilera joan behar genuenez, hurbildu nintzen. Kosta osoa zeharkatu nuen, Miarritzetik hasita. Txundituta geratu nintzen kostako herriekin, baita Guggenheim museoa ikusi nuenean ere. Bilbo nahiko hazten ari da eta ezagutu nahi nuen, jendeak gomendatzen baitzidan.

—Zertan datza zirkuaren bizitza?

G—Ez da beti jendeak uste bezain polita, ezta dibertigarria ere. Ez dago egonkortasun handirik bizimodu aldetik, beti bidaiatzen gabiltzalako. Hoteletan bizi gara normalean eta, zenbait kasutan, apartamentuak jartzen dizkigute. Beraz, uneoro hiri berrira egokitzen ibili behar dugu azkar. Alde onak ere baditu, herrialde eta kultura asko ezagutzen ditugulako, bidaia asko egiten ditugulako... Japonian, halere, bulego moduko ordutegia

dugu zirkoan. Lehen saioa eguerdiko 12:30ean da eta azkena 16:30ean. Beraz, goizeko 8:00etan hasi eta arratsaldeko 19:00etan bukatzen dugu.

E—Eta hori oso arraroa da guretzat. Hemen kontrakoa da, antzezpenak arratsalde-gau partean izaten baitira. Japonian, ondorioz, gorputza egokitu beharra dugu, goiz antzeztu ahal izateko. Gainera, ohera goiz sartu beharra dugu, hurrengo egunean berriro 8:00etan hasteko.

—Baina nomada moduko bizimodua gustuko izango duzue, ezta?

G—Beno, batzuetan bai, besteetan ez. Jadanik hogei urte daramatzat bizimodu honekin eta, egia esan, nahiko nekatuta nago. Dena dela, uste dut etxe batean bizi eta egonkortasuna dudanean, hiru hilabete tokiz aldatu gabe eman ondoren pentsatuko dudala: baina zer da hau? Eta agian pixka bat agobia naiteke. Oraingo bizimodua tarteka hobeto eta tarteka okerrago daramat.

E—Bai, niri ere horixe gertatzen zait. Batzuetan herrimina sartzen zait, etxean egoteko beharra sumatzen dut edo tortilla pintxo bat jateko gogoa pizten zait. Horiek bai botatzen ditudala faltan! (barreak).

—Eta zu Gerry, Austriara, zure herrira itzuli ohi zara?

"Batzuetan herrimina sartzen zait, etxean egoteko beharra sumatzen dut eta tortilla pintxoa jateko gogoa dut"

G—Bai, bai. Nire familia han dago eta urtean behin hara joaten naiz. Orain Esti eta biok joaten gara.

—Nola eroango duzu toki batean geldi bizitzearena Austriatik kanpo?

G—Beti hortik ibili naizenez, ez nago horren lotuta Austriarekin. Itsasoak liluratzen nau, Austria mendia da dena eta giltzapetuta bezala sentitzen naiz batzuetan. Hemen, berriz, askeago sentitzen naiz. Euskal Herria oso gustuko dut, hemengo berdetasuna... Janaria ere oso-oso gustuko dut, oso ona baita, hain ona arriskutsua dela (barreak). Eta Esti ere hemen dago. Zirkuarekin zerikusia duen zerbait zabal nezake gainera, bizimodua aurrera ateratzeko, horrelako ezer ez baitago inguruan. Bertan finkatzeko gogoz nabil. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito).

☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Jatorrizko andrak

Irudiotan hainbat argazkilari eta argazkizalek utzitako Mexikoko (horien artean emakume zapatistenak) eta Guatemalako andrazko indigenen irudiak dituzue. Pasa den urte amaieran *"Emakume zapatista eta Munduko emakumeen arteko Ramona komandatea Topaketak"* egin ziren Lakandona oihanean (Chiapas, Mexiko). Bertan hainbat jatorrizko herrietako andrazkoak eta munduko hamaika herrialdetako emakumezkoak bildu ziren emakumearen inguruan berba egiteko, hausnartzeko... guztien ahotsak batu eta batera aurrera egiteko indarra hartzeko. Topaketetan entzun zen mezuetako bat izan zen haiekiko bazterketa hirukoitza izan dela historian zehar: indigenak izateagatik, pobreak izateagatik eta emakumezkoak izateagatik. Baina bazterketa bakoitzeko duinki altzatu dute burua eta etorkizuna euren esku dagoela aldarrikatu dute, hala, munduko emakume borrokalariakaz batera egingo diote (diogu) aurre etorkizunari.

Argazkiak: **"Pere" eta beste batzuk**

Schettino

VIVA LA ORGANIZACION DE
LAS MUJERES ZAPATISTAS
"COMPAÑERA LUCHA"

LA LIBERTAD
ES UN
QUE LA EDUCACIÓN
HARÁ
PATISTA:



I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSTABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

• Odontologia orokorra
• Ortodontzia
• Periodontzia
• PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Zuzendariak badirelako

Andrazko zine-zuzendarien zikloa antolatu dute **Leioan martxorako**

***Grbavica, el secreto de Esma* filmaren kartela**

Leioako Perseo zine-forumak andrazko zuzendariei eskainiko die martxoko zine zikloa. "Emakume zuzendariak" izenagaz prestatu duten zikloaren barruan lau film eskainiko dituzte martxoan zehar, ohi legez martitzenetan 20:00etan egingo dira emanaldiak, Kultur Leioako Auditoriumean.

Zikloari hasiera emoteko, 2006an Berlineko zine jaialdiaren Urrezko Hartza irabazi zuen *Grbavica, el secreto de Esma* filma egongo da ikusgai martxoaren 4an. Jasmila Zbanic (Sarajevo, 1974) zuzendariaren filma Sarajevoko Grbavica auzoan kokatzen da eta ama batek bere alabari kontatu gura ez dion historian oinarritzen da.

Hurrengo martitzenean, hilak 11, *El buen nombre* lana eskainiko dute. Pulitzer saria jaso zuen nobelan oinarritutako film honen zuzendari Mira Nair (Rourkela, India, 1957) ezaguna da, besteak beste, "Emakumezko zuzendariak" zikloak ondorengo martitzean (hilak 18) emango duen *La boda del monzon* pelikulagatik, edota Irailaren 11ko (AEB) gertakarien inguruan ikus-entzunezkoak sortzeko aukeratutako hamaikakoan bera ere bazegoelako. Horrenbestez, Nairren bi lan emango dituzte Perseokoek: *El buen nombre* (hilak 11) eta *La boda del monzon* (hilak 18).

Andrazko zine zuzendariei begirako martxoko zikloa amaitzeko aukeratu duten filma *Mi vida sin mi* da. Isabel Coixetek (Bartzelona, 1962) orain dela sei urte estreinatu zuen oihartzun handia lortu zuen lana. Coixeten film ezaguna ikustera hurbildu gura duenak hilaren 25ean dauka hitzordua.

«Jasmila Zbanic, Mira Nair eta Isabel Coixeten filmak eskainiko dituzte»

Amaitzeko gogoratu, ohi legez, Perseo zineforumeko filmak ikusteko sarrerek 2 euroko prezioa dutela. ○

Eskorbuto, garbi eta ozen!

Taldearen lehenengo maketa, *Jodiendolo todo* zaharberrituta atera du Brixton Recordsek



Biniloaren azaleko irudia aldizkari honetako argazkilari Asier Mentxakarena da

Laurogeiko hamarkadan sortu zen ezkerraldeko talderik gordinena, 1977ko punk mugimenduaren dezibelio bortitzei jarraituz. 1983an Madrilerako bidean zihoazela poliziak gelditu eta taldekideak atxilotu zituen eskuko ekipajean zeramaten *Jodiendolo todo* maketagatik. 36 orduz eduki ei zituzten preso; hainbatek bere buruari galdetzen dio hura gertatu ez balitz eta Madriletik kontratu diskografiko bategaz itzuli izan balira, zer? Dena dela, garbi dagoena da maketa hark taldearen etorkizuna eta jarrera aldatu zituela, batzuentzat txarrerako, askorentzat onerako. Izan ere, maite ala gorroto, inork ezin dezake esan Santurtziko taldearen amorruz josita eta aldarrikapen sozialez jantzitako abestiak ez direla garai bateko adierazle bihurtu. Iosuk, Juanmak eta Pacok sortutako taldeak bigarren aro bat izan zuen 1992tik aurrera, lehenengo biak zendu ostean.

Iaz Erromoko Brixton Records zigiluko azpizigilu den GBRek lehen maketa hura editatzeko hitzarmena lortu zuen; eta hara non! maketaren masters originalak aurkitu zituzten. Zintak egoera oso txarrean bazeuden ere, "bobinak zaharberritzea eta masterizatzea" erabaki zuten Brixtonekoek. Hala, taldearen lehen lana izan beharko zukeena orain argitaratu dute, azkena legez; izen berberagaz, hori bai, *Jodiendolo todo* biniloa dagoeneko kalean da; A aldea 9 abestiz osatua eta B aldea 13gaz.

Informazio gehiago: www.brixtonrecords.com

zuzenekoa >
Begoña Bang-Matu

Leioako Blues-Jazz zirkuitoaren barruan eskainiko du kontzertua Begoña Bang-Matuk. Ekuatore Gineako abeslariaren ahotsagaz gozatzeko hitzordua martxoaren 14an izango da 22:00etan Cafe Ambigun (sarrera: 6 euro). Oraintsu argitaratu duen *I'm thinking about you* bigarren diskoko kantak zein *Magia Negra* lehenengo diskoko doinuak entzun ahal izango dira Leioan. Askok Fermin Mugurazagaz egin zuen mundu mailako biran ezagutu genuen Bang-Maturen nortasun handiko ahots indartsua, baina arrainak ura legez maite ditu Ekuatore Gineakoak soul, jazz, R&B doinuak, aukera paregabea izango da Leioako horiek eta psikodeliatik hasi eta countryrainoko estiloakaz gozatzeko.

Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

diskoa >
Amaia Zubiria

Aurten bete ditu ditu 60 urte Amaia Zubiriak eta bizitza erdia taula gainean eman ostean, bosgarren bakarkako lana aurkeztu berri du: *Nabil* disko berria, abesti "zaharrakaz". Berak azaldu duenez, "pertsona bereziek momentu berezietan" abestutako 14 kantek osatzen dute lan berria. Hala, berbarako Xabier Leteren berbak eta Lurdes Iriondoren musika duen *Hala ere* kanta, edota Estitxu Robles-Aranguizen *Agur Maria* abestiak daude *Nabil* diskoan. Horrez gainera, diskoari izaera femeninoa dariola adierazi du donostiarrak.

diskoak

Etorkizuna...
Bilduma
Musikherria

Independentziaren aldeko CD bilduma osatu du Musikherriak 2008ko Gazte Topagunerako. Lezon ospatuko den Topagunearen abestiaz gain (Hesian taldeak egina), beste pilo bat talde batzen ditu *Etorkizuna Independentzia!* bildumak: Txurrustada, Feos Pero Majos, Aketza eta Skatu...

Adrenalina
Kaotiko
Oihuka

Kaotiko talde ezaguna euskal rockaren eredurik sendoenetariko bat dugu. *Adrenalina* diska talde bizi eta intuitibo baten eskuetatik datorkigu, kontzeptu ausart eta urratzaile. Bilduma berriak 13 kanta berri ditu, kanta bizi eta kitzikagarriak. Erritmo gogorrei jarraituz, doinu erakargarriek eta gitarra zorrotzek bat egiten dute.

Alijos confiscados
Narco
Bruto

Atzean lotu dira ustezko irainengatik Guardia Zibilak bahitutako 5.000 diskak. Narco bueltan da, hala erakutsi ziguten lehenengo kontzertuan Hatortxurocken. 12 urteko ibilbidea bildu dute diska berrian: rapa eta metala. Aldaketa bat ere badago: Chato Chungok ez du gehiago joko eta Distorsion Moralesek ordezkatuko du.

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Etxera eroaten dizugu gasoleoa

Txartel hau aurkezten baduzu 3 euroko deskontua edukiko duzu zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

Euskaraz, erlijioak

Erlijioaren jakinduria bildumako lehenak kalean dira; islama, budismoa eta taoismoarenak

Argia ikusi dute dagoeneko *Erlijioaren jakinduria* bildumako lehenengo 3 lanek: *Korana, Budaren Hitza* eta *Dao De Jing*, hurrenez hurren, islam, budismo eta taoismoaren "liburu sakratuak" euskaraz irakur daitezke. Allahren jarraibideen itzultzaileak Iñaki Ugalde eta Dionisio Amondarain dira, Indiako jakitunaren berbak Kepa Egiluzek euskaratu ditu eta Lao Ziren lana Pilar Lasartek eta Joxe Agirrek itzuli dute txineratik. Itzulpenok jatorrizko testuetan oinarrituz egin direla eta adituek berrikusi dituztela adierazi dute.

Bildumaren egile den Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultatea eta Ibaizabal argitaletxeak adierazi dutenez,

«Hurrengo urteetan beste hainbat teologiatako lanak itzuliko dituzte»

munduan zehar jarraitzaile andana duten hainbat erlijio eta teologietako oinarrizko idazkien euskarazko bertsioak bilduko dituen ekimena 15 liburuk osatuko dute, urtez urte hirunaka argitaratuko dituztenak. Aipaturiko lanak 2007-2008 tarteari dagozkio, baina iragarri dutenez aurten beste hiru plazaratuko dituzte: *Analektak-Konfuzio, Zen tradizioko idazki hautatuak* eta *Ebanjelio Apokrifoak*; hurrengoan

Buda

Bhagavad-Gîta, Barneko liburua (J. Rumi), eta *Zazpi Haranak-Ziurtasunaren liburua (Bahaúllah)*; 2010ean *Upanishad hautatuak, Vimalakirtiren irakaspenak* eta *Erreforma protestanteetako idazki hautatuak*; azkenik, 2011n *Zoharreko idazki hautatuak, Patanjaliren sutra* eta *Taldmud, Midrash eta Mishnako idazki aukeratuak.*

Ekimenaren helburua argi utzi dute bultzatzaileek: *"erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzea, eta honen bitartez bultzatu nahi dugun hausnarketak gizartearen baitan elkar-ulermena sustatzen lagun dezake"*. Gainera, bildumako koordinatzaile Joxe Arregik azaldu legez, *"euskarak zuen zor handi bat kitatu dugu"*. Esan barik doa, juduen eta kristauen Bibliak ez dituztela sartu, aspaldi itzulita daude-eta. ○

liburuak

Satanen seme
Bukowski (Mikel Olano)
Elkar

Bukowski gai ezberdinei buruz aritu da: haurtzaroko eta gaztaroko pasadizo latzak, arlote-jendearen bizimodua, fabrikako jopuen deshumanizazioa, emakumeekiko harreman pipertsuak, prostituzioaren lilura beltza, gainbehera doan idazlearen antsietatea...

Julia Alvarez Resano...
Fermin Perez-Nievas
Pamiela

II. Errepublikako aztoratzaile nagusietakoa izan zen Julia Alvarez Resano *"la Julia"*. Dolores Ibarruri bezalako ospea lor zezakeen, baina faxistek *"la Julia"*ri zioten gorrotoa eta bere alderdiko (PSOE) kideen bazterketaren ondorioz garai horretako ahaztuenetarikoa da.

Sasoi beteko andrazko horiek

Kirol askotariko Emakumeen Uribe Kostako I.go Txapelketa martxoaren 8an



Irati Anda, etorkizun handiko eskalatzailea

Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun arloak, Sopelako Udaleko Kirol alorragaz batera, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira ekimen andana antolatuko ditu kirolean ere emakumearen jarduna aldarrikatzeko asmoz eta *"paradigma eta mito zaharkituak bertan behera uzteko"* helburuagaz. Horretarako, kirol askotako erakustaldiak eta zelanbaiteko txapelketa antolatu dute, eta Uribe Kosta osoan egiten den horrelako lehenengo ekimena izango da. Erakustaldietan eta txapelketan parte hartuko dutenak andrazkoak izango dira, horrek ez du esan gura (esan ere ez genuke egin behar) ekitaldiok emakumezkoei bakarrik zuzenduta daudenik, hartzailea edota ikuslea gizarte osoa da eta. Horrez gainera, Euskal Herriko emakumezko kirolari profesionalek parte hartuko duten mahai ingurua ere prestatu dute. Ekimen horiek guztiak martxoaren 8an egingo dira, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten 7 udalerrietan. Hala, udalerri bakoitzean kirol jakin batzuetako erakustaldiak eta txapelketa egingo dira, hau da: Sopelan surf, saskibaloi, voleibol, txirrindularitza, tai chi (udaletxean), patinaje, xake (udaletxean), Sofbol (Urkon), mendi-martxa eta urazpiko kirolen (ugerlekuan) ekitaldiak egingo dira; Berangon arte martzialak (judo), futbol (8 talde) eta atletismokoak; Urdulizen eskubaloia, arku-tiroa eta herri kirolak, Gorlizen eskupilota eta jockeyrenak; Plentzian piraguismo, arraun eta errugbiarenak, Barrikan paddel erakustaldia eta herriko andrazkoentzat zabalik egongo den lehiaketa, eta Lemoizen patinajea edo pilota

«Mankomunitatea osatzen duten herri guztietan egingo dira ekimenak»

(Armintzako pilotalekuan). Halere, herri bakoitzeko kirol moten erakustaldiak alda litezke, aipatutakoak izan arren iragarrita daudenak.

Mankomunitateko Berdintasun arlotik egindako analisi luzean adierazi dutenez, besteak beste, *"kirolean emakumeek egindako bidea gainontzeko gizarteko arloetan burutako lorpenakaz batera etorri da"*. Oraindik bide luzea dugu aurretik, ostera, helmugara heltzeko sasoian gaudela erakutsi behar dugu! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda

350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.

SERVITEC



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Rosa Temiño > Biladi Palestinar Kultur Zentroko arduraduna

"NBEk 67an inposatutako lurra mugetara itzultzea onartuko lukete palestinarrek"

Temiñok azaldu legez Biladi berbak "nire lurra" esan gura du

Palestinaren inguruko albisteak egunero heltzen zaizkigu geure etxeetara, baina hala ere, maiz ez dakigu zer nolako errealitatea bizi duten palestinarrek. Errealitate hori ezagut dezagun Biladi Palestinar Kultur Zentroa bertako errefuxiatuen inguruko erakusketak antolatzen dabil. *Biladi* hitzak "*nire lurra*" esan gura du arabieraz. Rosa Temiño aipatutako zentroko arduraduna da eta beragaz egon gara berbetan.

—Zer dakigu palestinarrek bizi duten errealitateaz?

—Egunero Palestinari buruzko albisteak ikus-entzuten ditugun arren, haien errealitatearen inguruko ezjakintasuna da nagusi. Adibidez, momentu honetan Gazako herritarrek ez dute sendagairik, eta hesgailurik ere ez... Ez dute ezer. Egoera oso kaotikoa da, baina guk ez dugu antzematen. Deserrotze dramatikoa jasan arren, atsekabez eta itxaropenez etorkizun bidezkoagoa lortzeko borrokan dihardute.

—Zenbat errefuxiatu daude?

—Guztira zortzi miloi inguru dira, zeinak okupatutako lurraldeetan eta errefuxiatu-eremuetan banatuta dauden.

—Gatazka konpontzeko itxaropenik al dute palestinarrek?

—Gelditzen zaien bakarra itxaropena da. Baina itxaropen hori gero eta urrunago sumatzen dute.

—Zer ikus dezakegu Biladik antolatutako erakusketan?

—Argazki erakusketa bat da. Bertan, Palestinako errefuxiatuen ibilbidea dago ikusgai. UNRWA (Nazio Batuen Erakundeak Ekialde Hurbilean Palestinako Errefuxiatuentzat duen Agentzia) duela 57 urte baino gehiago errefuxiatu palestinarrekin egiten ari den lana eta etorkizunerako dituen asmoak plazaratzen ditugu. Argazkietan ikus daitekeen bezala, 5 alor jorratzen ditu UNRWAk: hezkuntza, osasungintza, larrialdiak, garapen ekonomikoa eta babes soziala: Palestinan, Jordanian, Libanon eta Sirian dauden errefuxiatuen bizitza, azken finean.

—Zein da erakusketaren helburua?

—Inork ez du ulertzen zeure herrian bertan bizi zaren bitartean errefuxiatu bat izateare-na. Baina pedagogikoki, Palestinagaz hori

«Egoera oso kaotikoa da han baina guk ez dugu antzematen»

gertatzen da; milioitik gorako errefuxiatu daude Palestinako kanpamentuetan bizitzen duela 60 urtetik hona: egoera hori ezagutaraztea eta salatzea da geure ekimenaren helburua.

—Zein izango litzateke gatazkaren konponbidea?

—Aukerarik logikoena lurralde okupatuak itzultzea izango litzateke. Palestinarrek NBEk (Nazio Batuen Erakundea) 1967an haien oniritzi barik inposatutako lurra mugetara itzultzea onartuko lukete.

—Zenbait lekutatik igaro da jada erakusketa: egongo al da gehiagorik?

—Bai. Hurrengo egunetan Barakaldora eroango dugu erakusketa eta ondoren Trapagako bidea hartuko duelakoan gaude. Eskualdean bi herritan eduki dugu: urtarrilean Sopelan izan zen eta EHUk Leioan duen kanpusean otsailaren 22ra arte eduki dugu. Ikusi barik gelditu direnek interesa badute, lehen esan bezala, jakin dezatela hurrengo egunetan Barakaldora eroango dugula erakusketa. ○

APELLIDUAK ABIZENDU!!!!

Zure izena edo abizena euskarazko grafiaz jarri gura duzu?

ERRAZ-ERRAZA DA!

5 euroren truke.

ARGIBIDEAK

ASESORES AIZPURUA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel: 944639480

ASESORES PREMIUM AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel: 944802341

ASESORÍA CONSULTORÍA J&J GOBELA AHOLKULARITZAETXEA
Tel: 944316514

ASESORIA ZUBIETA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel: 944640122

ASESORES GALEA AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944609512

GESTORIA URALDE GESTORIA (AREETA)
Tel: 944640322

IBERKO (AREETA) AHOLKULARITZA ETXEA
Tel: 944300294

ASESORES SATEL AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel: 944807049

ASESORIA GESTORIA PABLO L. de URALDE S.L.
AHOLKULARITZA-ETXEA eta GESTORIA
Tel: 944308560

GESTORIA ARDANAZ ANTUÑANO GESTORIA
Tel: 944800417

‘Kao: sumendiko sekretua’ bideojokoa zozketatzen dugu



Zelan parte hartu zozketan?

Oso erraz,
bidali e-mail bat
uk@aldizkaria.biz helbidera,
subjectean KAO idatzi
eta zozketan
hartuko duzu parte.

KAO ordenagailuan
erabiltzekoa da,
10 urtetik gorako
gaztetxoentzat

Aurreko zozketaren irabazlea:
Urtzi Martinez*

*** Saria jasotzeko**
UKren bulegora goizez deitu:
94 491 13 37

proba ezazu KAO
www.elhuyar.org/kao wegunean

Kreoia Etxea

Munduko kulturen topalekua

Patricia Habib eta Paula Ugidos Kreoia Etxean

Janari denda bat baino askoz gehiago da Kreoia Etxea, edo hori gura du behintzat Patricia Habib jabeak. Otsaila hasieran zabaldu zituen ateak munduko kulturak, usainak eta zaporeak biltzen dituen txoko honek: *"Azken finean, sukaldaritza kulturen parte garrantzitsua da"*. Hego Amerika, Afrika, Asia eta Euskal Herriko produktuak aurkitu ahal izango ditugu bertan: *"Bertako jakiak dira denak. Ez ditut Europarrentzat egindako produktuak ekartzen, Mexikotik eta beste hainbat herritatik zuzenean inportatutakoak baizik"*. Kolombia, Bolivia edo Thailandia bezalako herriek lehengai berdintsuak erabiltzen dituzte: *"Ezberdina dena, hauek prestatzeko era da"*. Almojabana, juka, pikantea, guaiaba izozkia, ahuakatea, martorria... behar duen guztia aurkituko du bere sorterriko platerak prestatu zein gauza berriak dastatu nahi dituenak. Honez gain, sukaldaritza tresnak eta errezeta liburuak eros daitezke: *"Gune zabala da, guztiontzat irekia, euskaldunentzat zein beste herri batzuetatik etorritakoentzat"*.

Jende asko hurbildu da Kreoia Etxera: *"Batzuk bidaietan ezagututako zaporeen bila datoz; besteak aldiz, gerra garaian, emigratu behar izan zutenean, jandakoa gogoratzera"*. Bariku eta zapatuetan dastatze saioak daude. Poltsa ekologikoak erosteko aukera egongo da: *"Honekin lortutako diruaren parte bat proiektu ezberdinetara bideratuko dut; erosleak kontsumitzaile soilak baino gehiago izatea gura dut"*.

Bolue, 5 ALGORTA / Tel.: 94 430 65 14

JUAN-MARI

Haragia eta txarkuteria

LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goiezti

• Zabalik egunero
• Eguneroko menuak
• Enpresa menuak
• Menuak nornberaren gustura
• Egunero karta berezia
• Gauez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
• Jaun hartze bazkariak

zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

• Odontologia orokorra
• Ortodontzia
• Periodontzia
• PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

gOZOLABEA
galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA
• Bidrierak
• Grabatuak area teknikarekin
• Izpilu erraldoiak
• Instalazio orokorrak
• Fusin
Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak
Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO
Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu
etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE usategi
ALGORTA
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster guztiz sendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzaizuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoa izango duzu, baita zure lanean ere.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Emozionalki izugarrizko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eraman dezakeela.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atseden handiagoa hartzea. Besteen laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Lehenengo begiradan irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak izango dira gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsonei azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu jan baino lehen.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nork daki? Agian, maitasuna ere piz daiteke zuon bion artean.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daiteke, eta zu bakardadera bultzatu.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Ez dakit ohartu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta beraz ahaztu zarela uste du. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Lan egitea, kalera irtetea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekatuta zaude. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebeharrei.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
94 491 13 37


SEGURY
keko

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Udal hautetsia. 2. Lurreko kontinentea. R bikoitza. 3. Frantziako hiriburua. Umo, heldu. 4. Emakume izena. Hego Amerikako mendietan bizi den hugaztun belarjalea. 5. Barazki mota. A bikoitza. Da, ingelesez. 6. Ukitua. 7. Kontsonantea. Mordoila. 8. Ipurdi. Bokala. Kontsonantea. Röentgen. 9. Donostiako auzoa. Meatzeak. 10. (Errep.) Fruitu tropikala. Izadiko baliabideetatik lehengaiak lortu.

Goitik behera

1. Txalburuak. 2. Apez musulmanak. Arrazoi. 3. Erabiliko nuke. 4. Gaixo. Bukatu. 5. Modu. Erbioaren ikurra. Einstenioaren ikurra. 6. Goragalea etorri arte ase. Kanpo. Kontsonantea. 7. Pilpira. Musika nota. 8. Abederako azkeneko letra. Masurioaren ikurra. Iritzia. 9. Zabalduak. Kanpo. 10. Belagua aldeko mendia. Uztai.

Soluzioak

Z	I	N	E	G	O	T	Z	I	A
A	M	E	R	I	K	A		R	R
P	A	R	I	S		U	M	E	L
A	N	A		A	L	P	A	K	A
B	A	B	A		A	A		I	S
U	K	I	M	E	N	D	U	A	
R		L	A	R	D	A	S	K	A
U	Z	K	I		A		T		R
A	I	E	T	E		M	E	A	K
K	O		U	S	T	I	A	T	U

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak

Nor da?

- **Indiako emakumerik ezagunetarikoa zen Kalkutakoa.**
- **Egun osoa otoitzean ematen ei zuen**
- **Bizitza osoa eman zuen pobreen alboan**

> Aurrekoaren erantzuna: Xabier Silveira

> Irabazlea: **Igor Anuzita ***

***deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37**

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

•*Argia* *astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan*

•*Freexkue liburua*

www.argia.com



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- ***1970****az geroztik altzariak diseinatzen.*
- *300 m²ko erakusketa* ***ZURE ZAIN!***
- ***ARMAIRUAK NEURRIRA*** *egiten ditugu (Telletxe 4)*

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

GORLIZ LIBURUTIK HARTUTAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GORLIZKO TXISTULARIAK, 1964

Maiatzaren 28an, Gorpuzti eguneko prozesioa amaitu ondoren ateratako argazkia duzu hau. Atzealdean Gorlizko eskola zaharrak agertzen dira; geroago bota zituzten eta gaur egun udaletxea dago bertan.
Lucio, Iñaki eta Andoniren aita taldeko irakaslea eta zuzendaria izan zen, bizitza osoan musikari lotua: txistularia, Eliz Koruko zuzendaria eta gerraurreko Udal Bandakoa ere bai.
Bestalde, datu bitxia, egun horretakoa izan zen Mayor anaien lehenengo jendaurreko agerraldia. Jesus Marik jarraitzen du txistulari moduan Getxoko "Itxas-Argia" dantza taldearekin eta Uribe Kostako abesbatzekin ere ibili da: Areetako "Ondarreta", Plentziako "Iraunkor", Algortako "Bihotz-Alai", Gorlizko "Lirain"...
Elkarrekin sei edo zazpi urtez ibili ziren. Gorlizen urtero laupabost aldiz jotzen zuten, herriko jaietan eta prozesioetan, musutruk beti.

Argazkian: Lucio Bedialauneta (GB), Patxin Oleaga (GB), Pedro Maria Mayor, Jesus Mari Mayor, Andoni Bedialauneta, Iñaki Bedialauneta (atabalaria).

XABI ORTUZAR > aktorea

"Pertsonaia zaila baina polita da, ez da izan ahotik tua botatzea bakarrik"

Testua: **I. Sagarminaga**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Egiazalea eta nire lagunen laguna.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Buff! *Bailame el agua* filman, berbarako.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Historiakoa? Asko. Baina... zinetik Marlon Brando, asko miresten dut.

Ohitura txarren bat al daukazu?
Pilo bat! Agian, maite ditudanakaz gogorra izaten naizela.

Aitor dezakezun bizio bat.
Bizio bizioa den ez dakit, baina lagunakaz irtetea asko gustatzen zait, horrez gainera, motorrak, oso motor zalea naiz.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?
Lagunakaz urtero, irailean, egiten dugun bidaia. Egiteko dugu orain bat, badaude hegazkin txartel batzuk 6 hilabetetan kontinente bat ezagutzeko aukera ematen dizutenak eta hori egingo dugu, Asia izango da. Gero, askotan egon banaiz ere, beti itzuliko nintzateke Bartzelonara

Zein da zure ametsetako bat?
Bihar-etzi honetaz bizitzea, hau da zineaz bizitzea, zine onaz!

Ikusi duzun azken filma?
No es pais para viejos. Filma bueno, baina Bardemek oso ondo antzeztu du bere papera.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?
Maitasun barik, lagunen, familiaren eta bikotearen maitasun barik.

Euskal Herriko zure txoko kutuna?
Asko. Bat aukeratu behar badut, Matxitxako.

Gaua ala eguna?
Gaua, gaua! ○

LABURREAN— *Pilotari* (etb1) telesailean ezagutu dugu Xabi Ortuzar bermeotarra. 22 urteko gazteak arazo larri asko dituen Joseba Arizmendi "Jox" nerabe ilunaren papera egin du fikzioan. Paper gaitza izan dela aitortu badu ere, *"oso polita izan da, pertsonaia konplexuak oso interesgarriak dira, ez da ahotik tua botatzea bakarrik, asko ikasi dut"*. Esan liteke aktore izateko erabakia zoriz hartu zuela Ortuzarrek. Izan ere 7 urte zituela motorrean ibiltzen hasi zen eta 12 urtegaz trialeko txapelketan parte hartzen zuen. Espainia mailan lehiatzen zebilela istripu bat izan zuen, saihets bat eta masailezurra apurtu zituen eta motorren mundua utzi behar izan zuen; *"ilusioa galdu nuen eta gainera denek bizkarra eman zidaten"*; eta automobilgintza ikasten hasi zen. Baina irakasleak beste zerbait egitea "gomendatu" ei zion "show" munduaren ingurukoa, eta apustu bat medio casting batera aurkeztu zen. Hala, automobilgintzagaz batera Arte Dramatikoa ikasten hasi zen. Ikasketak amaitu eta lanean hasi zen. *Pilotariko* 2. denboraldia grabatzen dabil.

ESKERRAK MIGIEZINEN AGENTZIETAN EUSKARA SUSTATZEKO KANPAINA MONETAN PARTE HARTU DUTENEI

- Areeta inmobiliaria: Basagoiti etorbidea 45, 48991 GETXO
- Inmobiliaria Egurrola: Ibaiondo kalea 3, 48930 GETXO
- Inmobiliaria Llano: Aingeruaren etorbidea 4, 48993 GETXO
- M & M: Gobela kalea 3, 48930 GETXO
- Inmovaus: Basagoiti etorbidea 49, 48991 GETXO
- Eginkor: Basagoiti etorbidea 55, 48991 GETXO
- Egoitza: Algortako etorbidea 86, 48991 GETXO

Buscas casa edo etxebila zabiltza?

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

EUSKARA BIZI

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

INFORMAZIOA

Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
Asesoramiento lingüístico al comercio getxotarra
94 415 2252 · gehi@getxo.net

Erreferentziako
txartela:
Finantza-txartelen
erraztasun
guztiekin eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako asegurua**
abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.
Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
**BBK26 gida,
www.bbk.es**
orrian